Sufrimendua edo egonezin psikikoa sortzen diguten baldintzak (orokorrean inkontzienteak) sakonki ulertzen saiatzen da psikoanalisi; mina sortzen diguten sintomen eraketa mantentzen duten baldintzak dira eta pertsonaren nortasunaren esparruen berregituratze zabala lortzen saiatzen da psikoanalisi.

Psikoanalisi hiru prozesutan oinarritzen da:

- Kontzientzia: pentsamenduak eta pertzepzioak ulertzea eta nabaritzea.
- Prekontzientea: pentsamendu, oroipen eta ikaskuntza ez kontzienteak osatzen dute eta hauetara iristeko atentzio berezia beharrezkoa da.
- Inkontzientea: kontzientiari ihes egin dioten berezko desio erreprimituak.

Psikoanalisia lau metodo ezberdinetatik defini dezakegu:

- 1) Buruaren funtzionamenduaren gaineko teoria psikologikoko multzoa (metapsikologikoa) eta buru nahasteen eta bere tratamenduaren gaineko teoria klinikoa.
- 2) Garuneko esanahi inkontzienteen ikerkuntza metodoa.
- 3) Jarduera sozialen eta kulturen prozesuak ulertzeko ikuspuntu filosofiko edo orokorra.
- 4) Garuneko esanahi inkontzienteen ikerkuntza metodoa.

- Ikuspegi konduktuala.

Eredu konduktualak jokabideak ingurunean dituen ondorioak erabakigarriak direla azpimarratzen du, portaera berrien ikaskuntzan eta jokaera ez-egokitzaileren iraungitze prozesuetan jartzen du enfasia.

Eredu honetako prozesua honako hau da:

- a. Jokaera ez-funtzionalak identifikatu.
- b. Jokaera berriak ezarri, sistematikoki indarraraziko direnak.

Terapia konduktualak ondorengo oinarritzko adierazleak biltzen ditu:

- 1) Jokabidezko prozesuetan zentratzen da terapia hau, beste modu batez esanda, adierazten den jarreratik gertuen dauden jokabidezko prozesuetan, alegia (kognitibo-konduktualen kasuan izan ezik).
- 2) Terapia dagoen lekuan eta orainean zentratzen da, gertaera historikoei atentzia gutxi jarritz.
- 3) Terapia honek, jokabide, jarrera ez anormala ehuneko handi batean ikaskuntzatik datorrela dio (ikaskuntza klasikoa, ikaskuntza operantea eta moldeatua).

Cónfer eta Saslow (1967) adituen ustez, analisi konduktuala edo funtzionala deituriko diagnosi prozesuekin hasiera ematen dio terapia mota honi. Azaltzen de arazoa jokabidezko kategorietara eramaten du eta arazo horiek mantentzeko aldagaiak zeintzuk diren jakin nahi da. Terapeutak behin emaitzak dituela pazientearekin edo bezeroarekin partekatzen ditu eta aldi berean, esku hartzeak duen pisuaz mintzatuko



dira (teknika edo metodo ezberdinak dituelarik). Ondoren teknikak erabiltzen ditu: baldintzapen klasikoan oinarritutako teknikak, baldintzapen operantean oinarritutako teknikak, moldeamenduan oinarritutako teknikak eta autokontrollean oinarritutako teknikak.

- Ikuspegi humanistikoa.

Humanisten arabera, pertsona bakoitza errepikaezina da, eta hortaz, norbanakook errepikaezina dugun hori garatzeko zeregina dugu, horretarako jolasa eta sormena ezinbestekoak direlarik. Jarraituz, burua eta gorputza bat bezala ulertzen ditu humanismoak; emozioen, intuizioaren eta kontenplazioaren lanketari garrantzia ematen dio, arrazionalaren eta irrazionalaren arteko oreka bilatuz. Hemen C. Rogers eta F. Perls bezalako profesionalek bultzatutako eskolak, besteak beste, aurkitzen ditugu. Ikuspegi humanistikoaren barruan Terapia gestaltikoa, Analisi transakzionala eta Berezoan zentratutako psikoterapia aurki daitezke.

Eredu humanistikoa hobeto ulertzeko oinarritzko kontzeptu batzuk aipatzea ezinbestekoa da; Trebolek (2013) dionaren arabera, ondorengoak izango lirateke:

- Oztopoak ez dira utzi behar, aurre egin behar zaie; Oztopo bat norberaren irudi negatiboaren ikaskuntza da, onartua izan ez delako. Garapena bultzatu behar da.
- Lantzen duguna etengabe landu behar da.
- Esperientzia eta autokontzeptuaren arteko elkarreragina (lortzen duguna eta animoa).
- Inkongruentzia badago jokabide defentsiboa sortuko da.
- Aldaketarako mekanismoak sortuko dira, norberak bere emozioei esker garapen pertsonala lor dezan.

- Ikuspegi kognitiboa.


Modelo kognitiboa pentsamenduan zentratzen da, eta pentsamenduaren bidez jokabidea aldatzeko gizakiok daukagun gaitasunean; ikaskuntza memorian erregistratutako alderdi desberdinen ondorioz ematen da, espazioa eta denbora desberdinetan gertatu izanak ardura ez zaiolarik.

Teoria kognitiboa berriz, informazioaren prozesuan, arazoen ebazpenetan eta giza jokaerarako hurbiltasunean oinarritzen da. Teoria honen ezaugarri batzuk aipatzea ezinbestekoa da:

- Metodo aktiboak erabiltzen ditu.
- Terapeutak zuzendari papera hartzen du.
- Jarraitzen dituzten pausoak oso egituratuak dira.
- Iraupen laburrekoak izateko joera dute.

- Ikuspegi sistemikoa.

Korrante sistemikoaren ezaugarriak azalduko ditugu. Korrante hau gizakion arteko elkar eragin eta komunikazio ereduen asalduren adierazpenak sortutako desoreka, disfuntzio eta gaixotasunen tratamenduan erabili ohi da. Bestalde, familia-terapiak, familiak osatutako sisteman gertatutako komunikazio eta harreman disfuntzioak aztertzen ditu, elkar laguntzeko eta babesteko baliabideak eraginkorki erabiltzeko gaitasuna garatuz eta eskuratuz. Adituetako bat S. Minuchin dugu.



## 12. Irudia. Ikuspegi psikologikoak

### 2.5. Erabili beharreko teknika psikologikoak

Erabiliko ditugun teknika psikologikoak ikasleak hezkuntza etapan ezarritakoak izanen dira, betiere, oinarritzko gaitasunak bereganatzeko teknika eraginkorrak izango dira. Kontutan hartuko den irizpidea ondorengoak izango da: ikasleak duen premien arabera teknika batzuk edo beste erabiliko dira.

Esartek dionaren arabera (2013), jokabidea arazoak dituzten ikasleekin erabiltzeko teknikak bi motatakoak izan daitezke: lehenik, jokabidea mantentzeko eta garatzeko teknika operanteak, eta bigarrenik, jokabidea desagertzeko teknika operanteak. Ondorioz, bakoitzaren informazioa islatzeari ekingo diogu:

Lehenik eta behin, jokabidea mantentzeko eta garatzeko teknika operanteak:

-Moldeamendua: Subjektuaren eguneroko jokabideen artean ez dauden jokabide konplexuentzat erabiltzen da eta bere funtsezko helburu edo xedea errefortzu positiboa erabiliz jokabide baten garapena sustatzea da. Azken helburua zehaztu behar da aldez aurretik eta hori lortzeko beharrezkoak diren bitarteko pausoak ere. Lortu nahi dena eta eskatzen zaiena orekatua egon behar du. Ondoz ondoko hurbiltzeen bidezko ikaskuntza da, amaierako erantzunari nabari diren hurbiltzeak erreforzatuko dira. Iraupen luzeko teknika da eta hizkeran, idazkeran eta garapen kognitibo motela duten kasuetan praktikara eraman daiteke.

-Kitzikatzaile edo zirikatzailea: erantzun baten agerpenean laguntzen dute. Ondorengo kitzikatzaile motak aipatu ditzakegu: keinuzkoak, hitzezkoak, fisikoak eta inguruneak.

-Desegitea: Kitzikatzaileen erabileraren bitartez jokabide bat ezarri denean, jokabide hori mantentzea da helburua, proportzionatu diren laguntzak progresiboki eliminatuz.

Modu desberdinetan eraman daiteke aurrera: kitzikatzailearen intentsitatea gutxituz, kitzikatzaile batetik besterako denbora tarteak luzatuz eta laguntza pixkanaka erretiratuz.

-Kateatzea: Jokabide konplexuak oinarritzekoagoak diren beste batzuetan zatitu daitezke. Helburuak kateatuko dira helburuen konplexutasuna kontutan hartuz.

-Orokortzea: -Estimuluaren orokortzea: jokabidea kontrolatzen duen estimuluak, aldi berean antzekoak diren beste estimulu batzuekin erlazionatua dago.

-Erantzunaren orokortzea: erantzun bat errefortzatzea, antzeko erantzunak sortzeko probabilitatea handitzen dute.

Bigarrenik, jokabidea desagertzeko teknika operanteak ondorengoak dira:

-Desagertzea: Jokabide bat desagertzeko ez dugu modu positiboan errefortzatu behar.

-Errefortzu diferentziala: Bi abantaila ditu, batetik, errefortzuaren aplikazioaren menpe dago eta bestetik, jokabide desagokiak eliminatzeko erabiltzen da. Hiru mota ezberdinetakoak izan daitezke, errefortzu diferentziala jokabidearen tasa

baxuetan, errefortzu diferentziala beste jokabideetan eta errefortzu diferentziala beste jokabide bateraezinekin.

-Zigorra: Zigor negatiboan oinarritutako prozesuak bi dira, erantzunaren balioa eta denbora kanpoan hain zuzen ere. Erantzunaren balioa deituriko teknikarekin jokabide desegokia agertzean modu kontingente batean haurrak lortua zuen errefortzu positiboa kentzean datza. Esan beharra dago, fitxen ekonomiarekin batera eramaten dela askotan. Denbora kanpoan deituriko teknikari dagokionez, errefortzu positibo bat epe zehatz batean lortzeko aukera galtze kontingentea gertatzen da. Teknika hau erabilgarria da batez ere zigor fisikoa ekiditeko. Prozedurari dagokionez, umeari berari buruz zer espero den eta arauak zein diren azaltzen zaizkio abisu bakarraren ondoren DK aplikatu ahal izateko. Estimulantea ez den inguru batean erabiliko da eta ikasleen adinaren arabera denbora luzeagoa edo laburragoa egongo da kanpoan.


-Gainzuzenketa: Ondorio abersiboak ezartzean datza zerbait desegokia egiterakoan eta honekin erlazioa duena. Gainzuzenketa jokabidea agertu bezain laister aplikatu behar da. Kontutan izan behar dugu onuragarria izan behar duela subjektuarentzat.

-Fitxen ekonomia: errefortzu trukagarriak erabiltzen ditu, eta jokabia ikasteko, hobetzeko, gutxitzeko edo mantentzeko erabili ohi da. Asko erabiltzen da gizarte-egoera ahuleko hainbat talderekin lan egiteko. Lehendabizi, profesionalak baliokidetasunak adosten ditu erabiltzailearekin: zenbat fitxa emango zaizkion jokabide egokiengatik eta zenbat fitxa emango zaizkion nahi duen errefortzua eskuratzeko. Ondoren, egoki jokatzen duen bakoitzean, adostutako fitxak emango zaizkio erabiltzaileari.

Haur hiperaktiboen tratamenduan, sarritan erabiltzen da teknika hau, gizarte-errefortzuekin eta iraungitze teknikarekin batera. Bestalde, eskoletan, haurrentzako harrera-etxeetan, heziketa berezian, besteak beste.

-Kontingentiaren kontratua edo kontratu konduktuala: Jokabide bat aldatzea nahia duten pertsonen artean ezartzen den kontratua da (irakasle, guraso... eta seme-alaba, ikasle). Jokabidea aldatzea nahi duten pertsonen artean idatziz egiten den dokumentua da. Jokabideak zehazten dituen eta akordio batera

ailleatzen diren bi aldean arteko negoziazio bat da. Kontratuan “extra” bezala kodifikatu daitezkeen bonoak agertu behar dira ere.



### 13. Irudia. Erabili beharreko teknika psikologikoak


#### 2.6. Berariazko Hezkuntza Premia dituzten ikasleak eta curriculum egokitzapenak

Atal honi dagokion informazioa Marrodan, M.J. eta Baledona J.M. 2012. urtean argitaratutako *La calidad en las funciones del profesor de Pedagogía Terapéutica* liburuan oinarritu naiz.

##### 2.6.1. Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleak (BHP)

Hezkuntza premien barruan ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen artean ondorengoekin topo egingo dugu: zailtasun arinak eta iragaitzazkoa edo larrienak eta iraunkorrak direnak. Zailtasun arinak eta iragaitzazkoei dagokionez, irakaskuntza-ikasuntza prozesuan aurrera pausoak ematen joango dira (batzuetan errefortzulaguntza edota talde-malguak sortuz). Larrienak eta iraunkorrei dagokionez, neurri oso zehatzak behar izango dute.


Zailtasun kontzeptua eta Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arloko laguntza atxikituta daude Curriculum egokitzapenekin.



**14. Irudia.** Ikasleen zailtasunen eta erantzunerako neurrien arteko lotura (Marrodán eta Balebona, 2012, 29)


Premia bereziak dituzten ikasle horiei arreta jarri ez geroz, LOE-k biztanleria horrek ohiko hezkuntza jaso ordez hezkuntza ezberdina jaso behar dutela dio; eta beharrezko baliabideak ezartzen ditu zeregin hori ekiteko. Helburu zehatz batekin, inklusioa eta integrazioa lortzea.

II. tituluan, ekitatea bermatzeko, hezkuntza-laguntzaren berariazko premiaren bat dutelako arruntaz bestelako hezkuntza-arreta behar duten ikasleak aipatzen ditu. Halaber, zeregin horretarako beharrezkoak diren baliabideak ezartzen ditu, ikasle horiek hezkuntzan erabat txertatu eta integra daitezzen. Gorabehera sozialak direla eta edo ezgaitasun fisiko, psikiko nahiz sentsorialak direla eta berariazko laguntza eta arreta behar duten ikasleak, edo jokabide-nahaste larriak dituzten ikasleak hezkuntzari dagokionez nola tratatu behar diren, hori ere sartzen da zehatz titulu horretan.



### 15. Irudia. Berariazko Hezkuntza Premiak (Marrodán eta Balebona, 2012, 31)

Abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretuak gutxienerako irakaskuntzak ezartzen ditu Lehen Hezkuntzarako. Bertan, 13. artikuluan ikasleen aniztasunari ekiteko neurri orokor batzuk aipatzen ditu 1 eta 2 puntuetan, eta 3 eta 4. puntuetan berriz, neurri zehatzak zehazten ditu.



### 16. Irudia. Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleak

Inklusioaren ikuspegitik banakako curriculum egokitzapenerako teknika psikologikoak



### 2.6.2. Aniztasunari erantzuteko neurriak

Abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretuak neurri arruntak eta orokorrak ezartzen ditu ondorengoari aipu eginez:


1. Hezkuntza lanak kontuan izan behar du ikasleen aniztasuna, eta gai izan behar du guztien hezkuntza-garapenaz eta bakoitzaren premiez arduratzeko aldi berean.
2. Hezkuntza Departamentuak behar diren neurriak ezarriko ditu curriculum eta antolamenduan, ikasle guztien premiei eta bereziki hezkuntza-premia berariazkoak dituztenei erantzuteko modukoak.

Aniztasunari erantzuteko neurriak Marrodán eta Balebonaren (2012) ikuspuntutik ondorengo taulan laburbiltzen dute:

#### 1. Taula. Aniztasunari erantzuteko neurriak.

<b>ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRI ARRUNTAK (Ikasle guztientzat)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskolako lan-proiektua</li> <li>▪ Elkarbizitza plana</li> <li>▪ Tutoretza plana</li> <li>▪ Akademikoki bideratutako plana</li> <li>▪ Kurtso errepikapena</li> <li>▪ Familiekin lan egitea</li> <li>▪ Ohiko laguntza-taldea</li> <li>▪ Taldekatze malguak</li> <li>▪ Errefortzu edo indargarri tresnak</li> <li>▪ Eskolan arrakasta lortzeko programak</li> <li>▪ Espazio eta denboraren antolakuntza</li> <li>▪ Taldekatze eremuak</li> </ul>
<b>IKASKUNTZA ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAT NEURRIAK ETA BALDINTZA PERTSONALAK EDO ESKOLAKO HISTORIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Indargarri programak hautazkoen ikasgaien ordez</li> <li>▪ Gainditu gabeko ikasgaien Indargarri programak</li> <li>▪ PROA</li> <li>▪ Curriculum anitza</li> <li>▪ Lanbide-prestakuntza programak</li> </ul>
<b>HEZKUNTZA SISTEMAN BERANDU TXERTATU DIREN IKASLEENTZAT EZARRITAKO NEURRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Harrera ikasgelak</li> <li>▪ Hizkuntzalaritza ikasgelak</li> <li>▪ Tutoretza harrera</li> <li>▪ Eskolatze epe malgua</li> </ul>

<b>HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAT EZARRITAKO NEURRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Espekto Autista trastornoak duten ikasleentzat egokitutako ikasgela (ohiko eskolan)</li> <li>▪ Eskolatze epe malgua</li> <li>▪ Irakasle espezializatu baten harrera</li> <li>▪ Curriculum egokitzapen esanguratsuak</li> </ul>
<b>SUPERGAIUENTZAT EZARRITAKO NEURRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Curriculum hedapena</li> <li>▪ Eskolatze epe malgua</li> <li>▪ Tresneria aberasteko programa</li> </ul>




## 17. Irudia. Aniztasunari erantzuteko neurriak

### 2.6.3. Curriculum egokitzapenak

1990eko urriaren 3an onartutako LOGSE hezkuntza legeak eta 2006. urteko LOEren agiri eta legediek diotenaren arabera, Curriculum egokitzapenak aniztasunari erantzuna emateko neurrietako bat da. Ikasle zehatz bati edo ikasle talde bati zuzendurik egon daiteke eta ikasleen premiei hezkuntza erantzunak emateko asmoz, curriculum osagaiei buruz erabakiak hartzeko prozesua da.

Marrodán eta Balebonak (2012) curriculum egokitzapen maileri erreferentzia egiten diote ondorengo informazioa islatuz:



**18. Irudia.** Curriculum egokitzapen mailak (Marrodán eta Martínez, 2012, 35)

2/2006 maiatzaren 3ko Lege Organikoan oinarrituz geroz, garatzen dituzten araudiak, araudi autonomikoak eta EDU/849/2010 araudiak zazpigarren artikuluan Curriculum egokitzapenei erreferentzia egiten die ondorengoa azpimarratuz :

1. Curriculumeko egokitzapenak elementu guztietan edo baten batean soilik egin daitezke, betiere ikaslearen premiak kontutan izanik.
2. Egokitzapen Curricular bezala uler daiteke ikaslearen premiak asetzeko erantzuna lortu ez gero.
3. Egokitzapenak erreferente gisa ditu helburuak eta oinarrizko gaitasunak, betiere dagokion curriculumekoak.
4. Banakako edo taldeko curriculum egokitzapenak egin ahal dira.
5. Curriculum egokitzapenak ahal den neurrian gela barruan egingo dira eta ezinezkoa balitz gelatik kanpo egingo dira.
6. Laguntza espezifikoa behar izanez gero, honen antolamendua aniztasun planaren barruan islatuko da.
7. Tutoreak orientatzailearen aholku eta laguntzaz baliatuz, garapen prozesua koordinatzeko eta curriculum egokitzapenen jarraipena egiteko arduraduna da.
8. Curriculum egokitzapena egiteko, hezkuntza alorreko analisi batekin hasten da, jarraiki, ikaslearen premiak, partaidetza eta onura, eta curriculuma egokitzu posible izango da.
9. Analisi honen xede edo helburua proposamen curricular berri bat sortzea da, beharrezko neurriak barne hartzen duelarik.
10. Curriculum egokitzapen indibidualak bilduta eduki behar ditu ondorengoa: curriculumeko elementuak, ikastetxeko antolatzaile neurriak, baliabideak eta ikasleei aurkeztu beharreko laguntza osagarriak, ikaskuntza prozesuan sustatzen duten irakaskuntza estrategiak eta informazio eta komunikazio teknologien erabilera, besteak beste.
11. Arloko irakaslea izango da Curriculum Egokitzapena ezartzearen arduraduna, ikasleen harreran parte hartzen duten beste profesional batzuen laguntzaz eta orientazio zerbitzuen aholkuez baliatuz.
12. Curriculum egokitzapenak etengabeko jarraipen eta aldizkako berriskupenen menpe egoten dira eta behar izanez gero, aldaketak ere sor litezke.

Laburbilduz, Curriculum egokitzapenen xedea ikasleen hezkuntza premiei erantzun egokia ematea izango litzateke. Helburu hau lortzeko jarraiki Marrodán eta Balebonak (2012) aurkezten duten printzipioei erreferentzia egitea ezinbestekoa da:

- Normalizazio printzipioa: Curriculum egokitzapen guztien erreferentzia curriculum arrunta da.
- Printzipio ekologikoa: Curriculum egokitzapenak ikasleen hezkuntza-premiak testuinguru hurbilenera moldatuko ditu (eskola edota ikastetxea, ingurunea, ikasle taldea eta ikaslea bera).
- Esanguragarritasun printzipioa: Hasiera emateko curriculumeko sarrera elementuak egokituko dira eta ondoren, behar izanez gero, curriculumeko oinarrizko osagaiak (helburuak, edukiak, oinarrizko kompetentziak).
- Errealitate printzipioa: Curriculum egokitzapena bideragarria izan dadin, planteamendu errealistak egitea ezinbestekoa da eta aldi berean, ze baliabide ditugun jakitea eta zer lortu nahi dugun kontuan hartzea.
- Parte hartze eta inplikazio printzipioa: Curriculum egokitzapena tutorea eta premia bereziak dituzten ikasleen profesionalen ardura da. Erabakiak hartzeko momentuan eta prozesu guztian zehar adostasuna bilatuko da eta hartutako erabakiak Curriculum Egokitzapen Indibidualean islatuko dira.
- Printzipio sistematikoa: Curriculum egokitzapenean hartutako erabakiak malguak izan behar dira eta egokitzapenean erabiltzen diren metodologiak eta bertan hartutako erabakiak mantendu egin behar dira modu sistematiko batean.
- Printzipio sistemikoa: Parte hartzaile guztiak ikasleen hezkuntzara bultzatzen ditu (irakasle, guraso, ...), bakoitza bere neurrian.

CEI (Curriculum Egokitzapen Indibidualek) ikasleen eskolatzeari, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren hobekuntzari, curriculumeko proposamenari eta baliabideei eragiten diete.

Apirilaren 28ko 696/1995 Errege Dekretuak dionaren arabera, CEIek aniztasunaren arreta neurria da, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin aplikatzeko. CEIek ikasleen eskolatzeari, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren hobekuntzari, curriculumeko proposamenari eta baliabideei eragiten diete.

Beraz, CEIak ikasle jakin baten hezkuntza premiei erantzuteko asmoz curriculumeko sarbide-elementuetan (elementu pertsonalak, elementu materialak eta antolamendu-elementuak) edo/eta oinarrizko elementuetan (zer eta nola irakatsi “helburuak eta edukiak”, nola irakatsi “metodologia eta irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak” eta zer, nola eta noiz ebaluatu) egiten diren aldaketak dira. CEIak egin ahal izateko curriculum arruntetik abiatuko gara eta egokitzapen orokorreari emango zaie lehentasuna banakoen aurretik, horrelaxe lehenik curriculumeko sarbide-elementuak aldatuko dira eta behar izanez gero, curriculumeko nahitaezko elementuetan aldaketak egingo dira. Jarraian, ematen diren egokitzapenei erreparatuko diegu:

- Egokitzapenak sarbide-elementuetan: Curriculumeko sarbide-elementuetan egiten ditugun doikuntzei erreferentzia egiten die curriculumaren garapena ahalbidetuz.

Hezkuntza-sistemaren ohiko baliabideak erabiltzea eragozten duten egoerek (ikusmen, motore, entzumen arlokoak,...) sortarazten dituzte curriculumean sarbiderako egokitzapenak.

## 2. Taula. Egokitzapenak sarbide-elementuetan (Marrodán eta Balebona, 2012, 39)

Egokitzapenak sarbide-elementuetan	
Egokitzapenak espazioan	Eskolako sarbidea erraztea (eraikuntza oztopoak kentzea), soinu-aparatuak jarri, irakaskuntza bermatuko duen argiztapena eta ikasleen mugikortasuna eta autonomia erraztea.
Materialen egokitzapenak	altzariak, musika-tresnak, materialak eta ekipamendu espezifikokoak edo lekualdaketak egiteko laguntza teknikoak, ikusmen edo entzumena erraztuko duten materialak (ukimenezko arberlak, Braille materialak,...).
Komunikazio kodeen egokitzapenak	Sistema alternatiboak edota komunikazio handigarriak.
Baliabide pertsonalak	Fisioterapeuta eta beste profesionalen laguntzaz baliatzea.


- Curriculum Egokitzapen Indibidual ez esanguratsuak: Jarduera motetan, metodologian eta ebaluazio prozeduretan egiten dira aldaketak. Bi urte baino gutxiagoko atzerapenari aurre egiteko egokitzapenak dira.
- Curriculum Egokitzapen Indibidual esanguratsuak: beraien bidez, eta beti ikaslearen hezkuntza premien arabera, aldaketa garrantzitsuak ezartzen dira curriculumaren elementu nagusietan, arloko edo etapako helburuetako batzuk aldatu edo eta ezabatuz.

Kasu batzuetan aurreko zikloko erreferentziazko helburuak edo edukiak hartzen dira kontutan. Beste kasu batzuetan, berriz, ikaslearen hezkuntza premiak direla eta, egoera larriagoa denean, ikasleak beren hezkuntza-prozesuan eta norberaren autonomiaren eremuan, komunikazioan, gizarteratzearen eremuan ... oinarritzotzat jotzen diren gaitasunen garapen egokia lor dezatela bilatu beharko da.

Curriculum-egokitzapen esanguratsuek, onetsiak izateko, ondoko prozedura jarraituko dute:

- 1) Tutoreak, irakaslegoak (ikaslearen erreferentzia-taldeko irakasleak, kontsulta-irakaslea, irakasle laguntzailea eta ikasketa-burua) eta Pedagogi Aholkularitzategiko Talde Profesionalanitzak eginiko ebaluazioa oinarritzat hartuz, azken honen aholkularitzaz, beharrezkoak diren curriculumaren aldakuntzak definitzen ditu, gutxienez diseinatutako planarekiko ikaslearen aitaren, amaren edo legezko arduradunaren adostasuna barne hartuz.
- 2) Ikastetxearen Zuzendariak Curriculum-egokitzapenaren proposamena P.A.T.era igorriko du.
- 3) Talde Profesionalanitzak informe bat burutuko du, bertan egindako egokitzapenarekiko adostasuna jasoarazi, edo aldatu beharreko alderdiak proposatu, ardatz diagnostikoak eskaini eta hezkuntza-behar berezien sintesia egin, eta halaber beharrezkotzat jotzen dituen baliabide material eta/edo pertsonalak proposatuko dituelarik.
- 4) P.A.T.eko Zuzendariak curriculum -egokitzapenaren kopia, T.P.A.ren infromearekin, Ikastetxea kokatua dagoen Mugapeko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora igorriko du.
- 5) Ikuskaritzak Curriculum-egokitzapena ontzat ematen duen txostena burutuko du, edo aldatu beharreko alderdiak adieraziko ditu.

6) Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak espedientea Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzara igorriko du, honek behin-betiko onetsiko duelarik, onesten ez bada aldatu beharreko elementuak zehaztuz. Eskaera Mugapeko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora iritsi eta 30 egun naturaletan Ikastetxeak erantzunik jaso ez badu, Curriculum-egokitzapena onartutzat emango da.



## 19. Irudia. Curriculum Egokitzapenak



### **3. LANAREN GARAPENA: EGILEAREN PROPOSAMENA ETA ARRAZOIZKO PLANTEAMENDUA**

Hezkuntzan “kalitate” kontzeptua oso poliedrikoa eta konplexua dela esan ohi da. Izan ere kontzeptu honek adierazten digunari buruzko adostasuna lortzea benetan zaila da. González Galánek (2004) dioenez, enpirikoki balioetsi daitekeen eredu teoriko batean oinarritu daitezkeen hainbat indikatzaileen bitartez ikastetxeen kalitatea neur daitekeelako hipotesitik abiatzen gara. Ikastetxeen ebaluazio egokia burutzeko gakoa honakoa da: ebaluazioan eskuartu dezaketen aldagaien kantitatea eta zein aldagai erabili behar ditugun zehaztea. Horretarako, hezkuntzan lan egiteko sistema berrikusi eta ebaluatuko da eta beharrezkoak diren dokumentuak abian jarriko dira. Nolanahi ere, kalitate sistemaz hitz egiterakoan, planteatzen diren protokoloak praktikan jarri beharko dira hobekuntza ikus ahal izateko.

Aniztasunari erantzutea hezkuntza sistemaren eta bereziki, ikastetxeen erronka handienetarikoa bat da, hezkuntzaren esku-hartzea ikasleen benetako beharrei egokitu behar zaielako, kalitatezko hezkuntza ziurtatzearen. Guzti horrek ikastetxeei eta irakasleei eskatzen die egindako lanaren gainean gogoeta sakon egitea eta lan profesional duin eta ahaleginez betea egitea. Horretarako aniztasunari erantzuteko protokolo bat egotea ezinbestekoa da, irakasleek ikasleen gabeziak igartzen duen momentutik zer egin behar duten jakiteko ezagutza emateaz gain, ikastetxeko koordinazioa bultzatuko du. Maisu-maistren lana ongi egin ez geroz, ikasleen aurrera pausoak garrantzitsuak izango dira eta familiek ere lorpenak izango dituzte.

#### **3.1. Curriculum Egokitzapen Indibidualen diseinua**

Terminologia normalizatzailea izango litzateke lehen pausoa, beraz, ez du “ikasle atzeratu”, “balio-urritu”, “hezkuntza berezia” behar duena eta horrelako terminoek dakarten gutxiespen-zamarik; ondoren ikaslearen parte hartzea eta ikaskuntza bermatzeko Curriculum Egokitzapen Indibiduala egitea erabakitzen bada, Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen ezaugarrietara moldatuz egingen da egokitzapena. Edo beste modu batez esanda, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteei eman beharreko hezkuntza-erantzunak aldaketa batzuk behar izaten ditu sarritan talde

arruntaren nahiz zereginen ikaskuntzarako ikasgelako taldearen programazioarekin alderatuta.

Aldaketa horiek curriculumeko elementu guztiei dagozkie, hala nola, helburuei, edukiei, jardueri, metodologiari, antolamenduari edo ebaluazioari. Aipatutako elementu bakar bat edo guztiak aldatuta ere, ikastetxeko profesionalek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen curriculuma zehaztu beharko dute. Lehenik eta behin, curriculumeko sarrera elementuak aldatuko ditugu eta ondoren, behar izanez gero, curriculumeko oinarrizko elementuak aldatuko dira; baina helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak aldatu beharreko azken elementuak izanen dira. Jarraian nik proposatzen dudana Curriculum Egokitzapen Indibidualean (CEI) aldatu beharreko elementuak segida edo hurrenkera honetan azaltzen dira, CEIan alderdi ugari kontutan hartuko ditut, hala nola, ingurunearen eragina, aniztasuna erantzuteko neurriak, besteak beste.

Jarraian egokitzapenak edota moldaketak egiteko momentuan, orain arte aipatutakoaz gain, ondorengo alderdiak kontutan edukitzea eta aintzat hartzea iruditzen zait:

- Ikastetxeari dagokionez, ikasleei sor litezkeen arkitektura oztupoak kentzea edo ezabatzea; horretarako igogailuak ezartzea komenigarria izango litzateke, maldak jarri, komun egokituak eduki, gurpildun aulkiak sartzeko moduko ateak edukitzea .
- Lan-metodologiari erreparatuz gero, Haur Hezkuntzan txokoka edota guneka antolatuko dira horrela, haurrek ikasteko beharrezkoak dituzten estrategiak garatzen lagunduko diegu, nork bere ikaskuntza eraikitzeko. Modu honetan, haurrek objektu eta espazioekin esperimentatzeko aukera dute eta, era berean, erabaki dezakete noiz, non eta norekin jolastu. Lehen Hezkuntzan berriz, pentazitate proiektua martxan jarriko dute. Hezkuntza eredu honek bost eremu bereizten ditu pertsonaren baitan: adimena, gorputza, emozioak, identitatea eta gizartea. Lehenik eta behin, sistema sozialak kanpotik inposaturiko estereotipoak zalantzan jarriko dira, identitate pertsonalak garatzeko bidea zabaltzen du. Bigarrenik, ikasketa autonomo eta funtzionala du abiapuntu, eguneroko bizitzari lotua eta pertsona bakoitzaren jakituri,

maitasun eta botere ahalmenak onartzen ditu. Hirugarrenik, inteligentzia globala garatzen laguntzen du, pentsaera, sentimendu eta ekintzen arteko koherentziari esker. Laugarrenik, berdintasunean eta ekitatean oinarrituriko harremanak eratzen ditu elkarbizitzaren autorregulazio eta kudeaketaren bitartez. Genero femenino eta maskulinoaren barneraketak sortzen dituen bazterkeriak gainditzen ditu, estereotipo kulturalak, sozialak, ezaugarri fisiko edo psikikoagatikoak, aukera sexuala dela eta dauden estereotipoak... ere bai. Eta azkenik, pertsona bakoitza adimena, gorputza, emozioak, esentzia eta esparru sozialak osatzen dutenez eta esparru guztiak elkarrekin harremanetan daudenez, eredu hau saiatzeko da esparru bakoitzeko oinarritzko gaitasunen garapenean, horrela, pertsona orok bere haziera integrala eta bere bizitza proiektu pertsonala armonia, erresposabilitate eta konpromiso pertsonal zein sozialaren bitartez eratuko duelarik.

- Baliabideei dagokionez, gaur egungo teknologi berriei esker ikasleen ikaskuntza bermatu daitezke eta aldi berean, irakasleen sormena erabiliz ikasleari egokitutako materiala eraiki dezake. Adibide gisa har genezake “Ikasys proiektua”; tipologia zabaleko aktibitate didaktikoen bidez ikasleak oinarritzko konpetentziak lortzeko behar dituen baliabideak garatzeko balio duen hezkuntza ikerketa alorreko sistema berriztatzailea da. Ikasys proiektua, norberak ordenagailu bidez ikasteko sistema da eta tresna informatikoak (hardware), aplikazio informatikoak (software) eta, estrategia curricularrak (edukiak) uztartzen dituen multzoa da. Trebatzeko, memorizatzeko eta nork berea egiteko zeregina ditu.
- Egokitzapenak egiteko pausuen ordena errespetatzea guztiz garrantzitsua da. Hots, ebaluatzeko prozedurak, metodologia, jarduerak, edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak.
- Ikaskuntza indibidualizatua eta pertsonalizatua. Ikasle bakoitzak bere eritmo eta ikasteko modua duenez, irakasleak jarriko dizkio behar diren neurriak.
- Curriculum Egokitzapen Indibidualak jartzen duen guztia beteko da, ezarritako guztia praktikara eramanez.

Ondoren, nik proposatutako CEIaren dokumentu-agiri bat islatzen dut. Dokumentu hau osa ahal izateko Calvo eta Martínez (1999); Iza (2012), Marrodán eta Balebona (2012) eta Trebol (2011, 2013) erreferentziei esker lortu dut.

**CURRICULUM-EGOKITZAPEN INDIBIDUALA****I. IKASLEAREN DATU PERTSONALAK.**

IZEN ABIZENAK:

Jaioteguna:

CEI egite-data:

Helbidea:

Herria:

Telefono zenbakia/k:

Eskolatzea:

Erreferentzi Curriculumuma:

Zikloa:

Maila:

Taldea:

Ikastetxe edo Zentroa: Kodea:

Ikastetxe edo Zentroko helbidea:

Ikastetxe edo Zentroko herria:

Ikastetxe edo Zentroko telefono zenbakia/k:

Parte hartu duten profesionala/k eta Curriculumuma egokitu dutenak:

-Tutorea

-Orientatzailea

-Laguntza maisu-maistra

-PT irakaslea

-Entzumen eta Lengoiako maisu-maistra

-Hizkuntza irakaslea

-Aholkulariak

-Logopedak

-PATak

**IKASLEAREN ETA TESTUINGURUAREN HASIERAKO EBALUAZIOA****HASIERAKO EBALUAZIOA-IKASLEARI BURUZKO INFORMAZIOA****AURREZ IZANDAKO ESKOLATZEA**

- \*Aurretik zein ikastetxetan egon den
- \*Egin dituen kurtsoak
- \*Izan dituen laguntzak
- \*Egin diren curriculum-egokitzapenak

**HISTORIA PERTSONALA ETA SOZIALA**

- \*Datu mediko garrantzitsuak
- \*Mintzamenaren garapena
- \*Mugimenduaren garapena
- \*Autonomia eta gizarte-garapena
- \*Garapen intelektuala eta emozionala

**CURRICULUM-ARLOAK DIRELA ETA, DUEN GAITASUN-MAILA****Arloa edo esperientzi eremua:****Erreferentzi zikloa:****ONDOKO EDUKIN-MULTZOEI DAGOKIENEZ**  
**(Prozedurazkoak, jarrerazkoak, kontzeptuzkoak)****HONAKOAK EGITEKO GAI DA**

<b><u>NOLA IKASTEN DUEN</u></b>	<b><u>NOLAKO HARREMANAK DITUEN</u></b>	<b><u>IKASKUNTZAREN AURREAN DITUEN JARRERAK</u></b>
<p>*Zein estrategia erabiltzen duen</p> <p>*Nola biltzen eta prozesatzen duen ematen diogun informazioa</p> <p>*Zer denbora eman dezakeen lan bat burutzen</p> <p>*Zer baldintzapean ikasten duen hobeto eta zer nolako laguntzekin</p> <p>*...</p>	<p>*Ikasleak irakaslearekin dituen harremanak</p> <p>*Ikasleak beste helduekin dituen harremanak</p> <p>*Ikasleak gelako kideekin dituen harremanak</p> <p>*Ikasleak gainontzeko haurrekin dituen harremanak</p>	<p>*Zein egoeratan dagoen gustora eta noiz lan egiten duen hobeto</p> <p>*Zer atsegin duen gehien eta zein egiten duen segurtasun handiagoz</p> <p>*Zeintzuk diren gehien animatzen duten sariak edo emaitzak</p> <p>*...</p>



**CURRICULUM-ARLOAK DIRELA ETA, DUEN GAITASUN-MAILA**

Arloa edo esperientzi eremua:

Erreferentzi zikloa:

<b><u>ONDOKO EDUKIN-MULTZOEI DAGOKENEZ (Prozedurazkoak, jarrerazkoak, kontzeptuzkoak)</u></b>	<b><u>HONAKOAK EGITEKO GAI DA</u></b>	<b><u>ZAILTASUNAK EDO BEHARREZKO LAGUNTZAK</u></b>

### HASIERAKO EBALUAZIOA-HURBILEKO TESTUINGURUARI BURUZKO INFORMAZIOA

<b><u>NOLA IRAKASTEN ZAION</u></b>	<b><u>ZIKLO/MAILA/GELAREN FUNTZIONAMENDUA</u></b>	<b><u>IKASGELAKO GIROA</u></b>
<p>*Nola motibatzen zaion</p> <p>*Zer material-mota erabiltzen den</p> <p>*Nola lantzen den: banaka ala taldeka</p> <p>*Zer nolako laguntzak erabiltzen diren</p> <p>*Proposatzen diren jarduera-mota</p> <p>*Ze material erabiltzen diren</p> <p>*Nola egituratzen diren denbora eta espazioa</p> <p>*Ze estrategia erabiltzen diren</p> <p>*...</p>	<p>*Denbora-espazioen antolaketa</p> <p>*Ikasle-taldeak</p> <p>*Lan-metodologiak</p> <p>*Plangintza eta ebaluazio sistemak</p> <p>*Irakasleen antolaketa eta koordinazioa</p> <p>*Baliabide materialak eta horien antolaketa</p> <p>*...</p>	<p>*Nolakoa den irakaslearen eta ikasleen arteko elkarreragina (zer norabidetan gertatzen den komunikazioa/Irakasleak taldearekiko dituen jarrerak)</p> <p>*Nolakoa den ikasleen arteko elkarreragina (harreman-mota: erasokorra, lehiakorra, lankidetzazkoa, axolagabekeriazkoa, konfidantzazkoa/gelako eztabaidetan zenbateraino parte hartzen duten ikasleek/gelako arazoak nola konpontzen diren)</p> <p>*Ikasgelako giro orokorra (ikasgelako lanen aurrean duten jarrera: positiboa, axolagabekeriazkoa, aktiboa, parte hartzeko joera/Nolakoa den lan-giroa: zurruna, erlajatua, beldurrezkoa, atsegingarria/ Zenbateraino parte hartzen duten eta gelako arauak zenbateraino onartzen dituzten</p> <p>*...</p>

**HASIERAKO EBALUAZIOA-FAMILIARI BURUZKO DATU GARRANTZITSUAK****FAMILIARI BURUZKO DATU GARRANTZITSUAK**

Familiak zenbateraino parte hartzen duen  
emearen hezkuntza eta zaintzan  
Familiaren baliabide ekonomikoak  
Familia komunitatean zenbateraino  
integratzen den  
Gurasoen jarrerak eta igurikapenak  
...

\*Familiak eskolarekin duen harreman-mota  
eta kolaborazio-maila  
\*Familiak erabiltzen dituen komunitatearen  
baliabideak  
\*Ikasleak familiako kide desberdinekin duen  
harremana  
\*...

**HASIERAKO EBALUAZIOA-TESTUINGURU ZABALARI BURUZKO INFORMAZIOA**
**IKASTETXEKO ANTOLAKETA ETA GIROA**

- \*Espazio-denboraren antolaketa/ Irakasle-irakasleen antolaketa
- \*Laguntzako zerbitzuen antolaketa/ Baliabide materialak eta horien antolaketa
- \*Metodologi modalitate nagusiak/ Plangintza eta ebaluazio sistemak
- \*Irakasleen arteko kolaborazio-maila/ Irakasleen arteko harreman-mota
- \*Irakaslegoaren koordinazioa/ Komunikazio-maila
- \*Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua dela eta, irakaslegoaren inplikazio-maila
- \*Giza baliabideen eta baliabide materialen bikaintze-maila
- \*Ikasleek ikastetxearen funtzionamenduan duten parte hartze maila

**GIZARTE-INGURUNEA**

- \*Auzo edo herriaren egoera sozioekonomikoa
- \*Azpiegitura eta ekipamenduen zuzkidura
- \*Zonaren hezkuntza baliabideak (PAT, aholkulariak eta bestelako zerbitzuak,...)
- \*Gizarte-baliabideak
- \*Osasun-zerbitzuak
- \*Gizarte eta kultur zerbitzuak

**HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK****IKASLEAREN HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK**

.....rekin zerikusia duten  
hezkuntza premia bereziak

.....rekin zerikusia duten  
hezkuntza premiak

.....rekin zerikusia duten hezkuntza  
premia bereziak

**HARTU BEHARREKO ERABAKIAK**

(Kontuan izan beharreko alderdiak edo eta sartu beharreko aldaketak)

<b><u>ZIKLO/MAILA/GELARI DAGOKIONEZ</u></b>	<b><u>IKASLEARI DAGOKIONEZ</u></b>	<b><u>IKASTETXEARI DAGOKIONEZ</u></b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>*Espazio-denboraren antolaketan</li> <li>*Ikasle-taldeetan</li> <li>*Lan-metodologietan</li> <li>*Plangintza eta ebaluazio sistemetan</li> <li>*Irakaslegoaren antolaketa eta koordinazioan</li> <li>*Baliabide materialetan eta horien antolaketan</li> <li>*Helburu eta edukietan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>*Irakasteko erabiltzen diren estrategietan</li> <li>*Haurrarekin lan egiteko moduan (banaka nahiz taldean)</li> <li>*Haurrari emandako laguntzetan</li> <li>*Erabiltzen diren materialetan</li> <li>*Proposatzen zaizkion jardueretan</li> <li>*Irakaslearekin burutzen den lan-ordutegian</li> <li>*Motibatzeke erabiltzen diren moduetan</li> <li>*Helburu eta edukietan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>*Baliabide material eta pertsonalen antolaketan</li> <li>*Laguntzako zerbitzuen antolaketan</li> <li>*Metodologiari dagokion alderdietan</li> <li>*Plangintza eta ebaluazio sistemetan</li> <li>*Irakasleen koordinazio-sistemetan</li> <li>*Helburu eta edukietan</li> </ul>

### 3.2. Pedagogia Terapeutikoko irakasleen protokoloa

Creenak dionari jarraituz, ezgaitasunei edo portaeraren nahaste larriei loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle batzuek baino ez dute behar izanen pedagogia terapeutikoan espezializaturiko langileen laguntza, ikasle horiek, batetik, beharko dituztelako curriculum egokitzapen esanguratsuak edo oso esanguratsuak, eta bestetik, beren eskola ibilbidean modu mailakatuan, antolamendu proposamen bereiztuagoak.

Hezkuntza premia berezi guztiek ez dute berariazko laguntza eskatzen. Ikasle batek behar duen laguntza, ezgaitasunaren edo nahastearen izaeraren edo graduaren arabera izanen da, baita curriculumera iristeko zailtasunaren arabera ere. Garrantzitsua da azpimarratzea Pedagogia Terapeutikoko irakaslearen lanak inola ere ordezkatu behar irakasle tutorearen erantzukizuna eta beste irakasle batzuen esku-hartzea, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen integrazio normalizatu eta inklusiboa ahalbidetzeko. “Berariazko Unitateen eta ikasgelen” kasuan baino ez du eginen Pedagogia Terapeutikoko irakasleak tutoretza edo tutorekidetza lana talde horiekin.

Pedagogia terapeutikoko espezialista Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako Hezkuntzarako Laguntza Unitateetako kide da, horiek baitira aniztasunari erantzuteko organo koordinatzaileak.

Laguntza protokoloa ezagutu behar dugu eta hauekin harreman sarea osatu. Horretarako Pedagogia Terapeutikoko irakasleek jarduteko irizpide orokorrak zeintzuk diren jakitea funtsezkoa da, guztion arteko elkarlan koordinatu on baten ondorioz gure eginbehar nagusietako era egokienean bete ahal izango dugu beharrak erantzunez.

Jarraian aipatzera goazen irizpideak Pedagogia Terapeutikoko irakasleek izango lirateke eta Marrodán eta Balebonak diotenari erreparatuz osatu dut:

- Pedagogia terapeutikoan espezializaturiko baliabideak baliabide ohikoen osagarri dira eta helburua dute hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzea, ikasle horiek izan dezaten, ikastetxe arruntetan ikasteko eta bilakaera egokia izateko behar den laguntza espezializatu, eta aldi berean, etekina atera diezaioten inguru horren aberastasunari.
- Hezkuntza premia bereziak dituen ikaslearen bilakaera psikopedagogikotik eta orientatzaileak egindako curriculum eta antolamendu proposamenetik abiatutik,

tutoreak curriculuma egokitzeko dokumentua egingen du, Orientabide Departamendurekin eta Hezkuntzarako Laguntza Unitatearekin bat. Txosten psikopedagogikoa eta curriculuma egokitzeko dokumentua beharrezkoak dira zeinahi neurri berezi hartzeko edo espezialistek esku hartzeko.

- Hezkuntza premia bereziak dituen ikaslearendako proposaturiko esku-hartze espezializatuak Pedagogia Terapeutikoko irakasleak edo Entzumen Hizkuntzako irakasleek egingen dituzte, eta ikastetxeko orientatzaileek koordinatuko dituzte. Ahal den neurrian, ikasle batengan egindako esku-hartzeak profesional bakarrak egingen ditu (Entzumen eta Hizkuntza espezialistak edo Pedagogia Terapeutikokoak), bereziki beheko zikloetan.
- Ikastetxeko irakasle guztiei dagokie ikasleei egokituriko hezkuntza neurrietan inplikatzeko eta horietan parte hartzea, eta neurri arruntak aski ez direnean baino ez zaizkio lan horri gehituko hezkuntza premia berezietarako espezialistak.
- Pedagogia terapeutikoko irakasleak laguntza emanen die hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei, horiek curriculumaren egokitzapen esanguratsuak edo oso esanguratsuak eskatzen dituztenean, bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo, eta ahal bada talde txikian, arrazoi pedagogikoez esaten baitute gizarte ikaskuntzak onura handiagoak ematen dituztela.
- Banakako esku-hartzea salbuespenez baino ez da egingen eta erabat beharrezkoa denean baino ez, ebaluazio psikopedagogikoan zehazturikoaren arabera eta horren ondoriozko curriculum proposamenaren arabera.
- Entzumen eta Hizkuntza irakasleen eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleen lana, eta orientatzailearen ekarpenak, ikasle bakoitzarendako espediente bakarrean gordeko dira. Espediente horiek Hezkuntzarako Laguntza Unitatean edo Orientabide Departamentuan gordeko dira.
- Pedagogia terapeutikoko irakasleak esku hartuko du zentzumen ezgaitasuna edo mugitzeko ezgaitasuna duten ikasleen curriculum egokitzapenetan. Edonola ere, ikasle horiek irakasle arruntek aniztasunari erantzuteko hartutako neurriak jaso ahal izanen dituzte.
- Nahitaezkoa da espezialistek orientatzaileekin, tutoreekin eta dagokien irakasleekin duten koordinazioa bermatzea. Espezialistek horien lana lagundu egiten dute eta horren osagarri dira. Izan ere, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen



integrazioak, ikasleek behar dituzten hezkuntza esku-hartzeen integrazioa eskatzen baitu lehenago. Hezkuntzarako Laguntza Unitateak, Orientabide Departamentuak eta orientatzaileak koordinazio hori eman dadin zainduko dute.

- Ikasturtean zehar hezkuntza premia bereziak dituzten eta pedagogia terapeutikoko irakaslearen laguntza behar duten ikasle berrien eskolatzeak, eskatuko du Hezkuntzarako Laguntza Unitatean edo Orientabiderako Departamentuan egoeraren aurreikuspena eta azterketa egitea, laguntzak berrantolatzeke, eta baita ohiko baliabideekin eta baliabide bereziekin, ikasturtean zehar emanen diren kasu berriei laguntza eman ahal izateko.

Jarraian taulan proposatzen dudana Pedagogia Terapeutikoko irakaslearen protokoloa Trebol (2011) erreferentzia bibliografikoetan oinarritutakoa da.

### 3. Taula. Pedagogia Terapeutikoko irakaslearen protokoloa

Noiz / Arduraduna	Zer	Adierazleak
<b>Kurtso hasierako Plangintza/</b> Orientazio Departamentua	Tutorea eta Orientazio Departamentuak plangintza prestatzen du. Aurreko ikasturteko informazioa jaso eta aztertuz.  Kontsultatu teoria, Aniztasunaren Trataera antolatzeke.	Departamentuko bileraren akta erabakiak agertzen dira.  Teoriaren bilduma.
<b>Kurtso hasieran eta lana egiten hasi baino lehen/</b> Tutoreak.	Frogetarako familiaren baimena lortu (pertsonalki eskatu edo telefonoz, posta-e.)	Bidalitako mezuak.
<b>Irailaren lehenengo aldian/</b> Tutorea eta Laguntzen	Ikaslearen maila curricularra aurrebaluatu. Horretarako ondorengoa egin daiteke: 1. Maila curricularra neurtzeko taulak pasa. 2. Aurreko kurtsoko ikaslearen notak (ebaluazio txostenak) aztertu (analizatu) eta gainditu ez dituen helburuak aukeratu... 3. Idatzirik egon daitezkeen txostenak jaso, irakurri eta aztertu.	Maila curricularra neurtzeko taulen bilduma.
<b>1.go hilabetean</b> <b>Iraialaren 2.</b>	Esku hartzearen proposamena... <b>-Fitxa egokituak</b> (Egokitapen curricularra)	Orientazio Departamentuaren

<b>15koan/</b> Tutore eta Laguntzen arduraduna	-Esku hartzea nola antolatu daitekeen adibide bat ikusi.	esku-hartzearen txostena.  Adibidearen eskola-praktika txostena.  Fitxa egokituak eta bere azalpena.
<b>1.go hilabetean Orientazio Departamendua</b>	Laguntza sailen ordutegia	Ordutegi-taula.
<b>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran/</b> Tutorea eta Laguntzen arduraduna	Eginiko lanaren balorazio txostena/Helburuetan eta egokitutako unitateetan oinarrituz: Gela guztietan egin den esku-hartzearen balantzea jasotzen da eta Orientazio Departamenduko artxibategirako izango da. Bertan bilduko diren datuak ixilpekoak dira eta Orientazio Departamendua behar dituen txostenak idazteko, erabakiak hartzeko, e.a. erabiliko da.	Ebaluazio amaierako balantze-txostena. Noten txostenak, NOTAK.
<b>Kurtso amaieran/</b> Orientazio Departamentua	Ikasturtean eginiko balantze-txosten orokorra idatziko da. Gela bakoitzean egin dena, nolako emaitza izan duen eta datorren ikasturteari begira egiten den aurrebalorazio edo aurreikuspena adieraziko da. Hau datorren ikasturtearen hasieran, protokoloa berriz martxan jartzen duen urratsa izango da; hau da, esku hartzearen plangintza abiatuko duen idatzia izango da.	Kurtso amaierako balantze-txosten orokorra.

Ondoren, *Pedagogia Terapeutikoko irakasleen betebeharre* erreparatuko diogu, CREENAK dionari aipu eginez:

*Pedagogia terapeutikoko irakaslea hezkuntza berezian espezializaturiko maisu-maistra dira. Bere helburu nagusia ezgaitasunari loturiko hezkuntza premiak bereziak dituzten ikasleen integrazioa sustatzea, laguntza zuzenaren bidez, curriculumera iristeko egokituriko materialak egin eta eskaintzearen bidez eta ikasle horiei arreta ematen dieten irakasleekin koordinatzearen bidez.*

### 3.2.1. Pedagogia Terapeutikoko Irakasleen eginkizunak

Pedagogia Terapeutiko irakasleek ondoko eginkizunen ardura dute:

- Beharrizan bereziak dituzten ikasleei laguntzea, banan-banan edo talde txikietan, ohiko ikasgelan edo laguntzakoan, curriculum egokitutako edo banakako lan-planetako gaiak lantzeko.
- Tutore, aholkulari, orientatzaile eta talde multiprofesionalarekin batera lan egitea, eskatzen zaion bakoitzean, beharrizan bereziak dituzten ikasleen curriculum-balorazioa egiteko.
- Behar balitz, aholkulari edo orientatzaile eta tutorearekin batera beharrizan bereziak dituzten ikasleen banakako curriculum-egokitzapenak egin eta garatzea, eta horien ikasmaterialak sortzea.
- Beharrizan bereziak dituzten ikasleen familien eta tutorearen arteko harremanetan laguntzea.

**Entzumen eta mintzamen irakaslearen eginkizuna:**

- Tutore eta aholkulari edo orientatzailearekin batera, ikasleen mintzameneko arazoak aurkitzea.
- Talde multiprofesionalarekin lan egitea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen diagnostiko psikopedagogiko bereizia egiteko.
- Irakasle, logopeda eta talde multiprofesionalarekin ados jartzea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen ebaluazioa egiteko eta dagokien hezkuntza-plana sortu eta ikuskatzeko.
- Talde multiprofesionalarekin batera, curriculum-egokitzeko irizpideak erabakitzea.
- Irizpide horien arabera, mintzamina zuzentzeko programa sortu, landu eta martxan jartzea, egoerarik larriena duten ikasleei lehentasuna emanaz.
- Tutorearekin batera, ikasturtean zehar ikasle guztiendako ezarritako ebaluazio jarraituak egitea, dagokion curriculum-egokitzapenean proposaturiko helburuekin, edukiekin, eta gaitasunarekin bat. Ikasturte bakoitza bukatzean, bien artean idatziko dituzte azken txostena eta erdietsitako emaitzak. Datu hauek Hezkuntzarako Laguntza Unitatearen baitan edo Orientabide Departamentuaren baitan balioetsiko ditu orientatzaileak, eta hala behar denean, CREENAko berariazko taldeek, kasu bakoitzean,

normalizazio eta integrazio handiagoa erdiesteko neurriak proposatzeko eta heldu den ikasturterako proposamena egiteko.

-CREENAko berariazko taldeekin elkarlanean aritzea, orientatzaileekin bat, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza balioespena eta horiendako laguntza eskatzen duten jarduera orotan.

-Hezkuntza Departamentuak agintzen dizkion eginkizunak, bere eskuduntzen eremukoak.

### **3.3. Aniztasunari erantzungo dion hezkuntzako esku-hartze protokoloa**

Jarraian proposatzen dudan aniztasunari erantzuteko protokoloa Marrodán eta Balebona (2012); Calvo eta Martínez (1999); Eusko Jaurjaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (1996) erreferentzia bibliografikoetan oinarrituz eraiki dut.

Ondoren aipatuko ditudan eguneroko hezkuntza-jarduera osatzen duten hainbat arazoei nola esku-hartu eta irakasleen jarduerari buruzko jarraipide batzuk eskaintzea dute helburu. Zentzu horretan, ikasle guztien ikaskuntza-prozesuetan aurrerapen txiki eta etengabeak ahalbidetzea espero dut.

#### **3.3.1. Irakaslearen zeregina**

*Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan bitartekari gisa aritu ez ezik, prozesu hori bideratzen du irakasleak*

*-Ikasleei euren ikaskuntzaren protagonista izaten laguntzen die:* Ikastea nahi duguna eta alde zuzenetik dakitena lotzea partaidetza bultzatzeko tresna guztiz eraginkorra da. Jolasak, ustekabeak, txokoak, proiektuak lantzeko orduan parte hartzea bultzatzea, lortu nahi dena jakinaraztea, e.a. motibatzaileak eta hezkuntza-jardunean gogo biziagoz parte hartzeko estrategia interesgarriak izan daitezke.

*-Laguntza pertsonalizatua eskaintzen die:* Irakasleak ahalik eta laguntza indibidualizatuena eskaintzen saiatu behar du, hori dela eta, burutuko duen esku-hartzeak ikasle bakoitzak dituen eragozpenen araberakoa izan behar du. Bi gauza indartu behar dira: irakasle-ikasleen arteko elkarreraginak eta ikasleen artekoak.

*-Programazioaren malgutasuna:* Guztiek ikaskuntza-prozesuan indar handiagoz parte hartzeko tresnarik egokiena, programa malgu, egokigarri eta posibilista, ikasleen proposamenak, interesak eta premiak biltzen dituen programazioa izango da.

Inklusioaren ikuspegitik banakako curriculum egokitzapenerako teknika psikologikoak

*-Giro egokia sortzen du:* Elkarri ezagutzea, konfiantza, besteak onartzea, elkarriketa eta lankidetzat giro egoki eta lasaia sortzen duten osagaiak dira. Irakasleak jarrera eta jokabide guzti horiek bultzatu behar ditu, ikasgelako dinamikan txertatzeko eta autoestimua eta gainontzekoekiko errespetua indartzeko.

*-Ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa eman behar die ikasleei:* Ikasleak euren aurrerapen eta eragozpen berri izan dezaten, eta prozesu hori berriz bideratzeko modu izan dezaten, ondorengo bultzatu beharko ditu irakasleak: komunikazio jario eta irekia, aurrera bultzatuko dien komunikazio motibatzaile eta posibilista, eta akatsak zuzendu eta aurrera egiteko modua emango duten jarraibide garbiak nahiz iradokizunak ekarriko dituen komunikazio argigarria.

*-Irakaslea irakasle-talde bateko kide da:* Irakaslea bere jardunaren protagonista bihurtzen da, jardun hori bi alderdi desberdinetatik abiatuz: \*kolektiboa: ICP egin behar duen taldearen kide gisa eta \*indibiduala: bera izango baita, taldeak hartutako erabakietatik abiatuz, programa orokor hori bere gelaren errealitateara egokituko duena.

### **3.3.2. Ikuskera orohartzailea**

Ikuskera orohartzaile izenekoek ikasleentzat interesgarriak, esanguratsuak eta funtzionalak diren gai, arazo eta egoeren inguruan antolatzea edukiak. Ikuspuntu horretatik begiratuta, talde-gelan aurki daitezkeen hezkuntza-premia guztiei erantzuteko aukera ugari ematen dute. Ondoren lanerako metodoak aipatuko ditugu:

*-Interesguneak:* Edukiak ikasleen berezko premien inguruan egituratzean datza. Ardatz gisa programazio jakin bat har dezakegu baina zenbaitetan, programan sartu ez ditugun edukiei heltzeko, bestelako metodo osagarri batzuk erabili beharko ditugu nahitaez.

*-Topikoak:* Topikoen bidez ikasleen hurbileko errealitatean jasotako gertakariekin lotutako edukiak lantzen dira. Eduki horiek oinarri gisa hartuta unitate didaktiko bat sortu daiteke.

*-Lanerako proiektuak:* Ikasleei planteaturiko problema baten inguruan edukiak egituratzea, horrela, partaidetza sustatuz, bai planifikazio-aldian baita jarduerak burutzeko unean ere.

### **3.3.3. Irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak**

-Ikasten gozatzeko modua eman behar dute. Jolasak baliabide ezin hobeak gerta daitezke eduki mota ezberdinak lantzeko.

-Ikaskuntzak testuinguru funtzionaletan burutzeko modua eman behar dute, esanahiak hobeto eskuratzen baitira; eta praktikaren eta esperimendazioaren bitartez hobeto eskuratzen dituzte.

-Era malguan antolatu behar dira espazio-denborak. Ikasleek lan egiteko eta ikasteko duten erritmoari egokitu behar zaizkio.

-Ikasleen alde aurretiko ezagutzen oreka-eza eragin behar dute, hausnarketaren, ikerketaren edota esperimendazioaren bidez ezagutzazko eskemak berriz ere egituratu ahal izateko.

-Kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak jorrazteko modua eman behar dute, ikasleek gaitasun guztiak garatuko dituztela bermatzeko.

-Irakasle-taldeak errefortzurako edo zabalkuntzarako jarduerak aurreikusi behar ditu, ikasleen hezkuntza-premiei hobe erantzuteko eta ikasleei ikaskuntzan aurrera egiteko bultzada bat emateko asmoz.

### **3.3.4. Lankidetzazko ikaskuntza**

Lankidetzan arituz gero, taldeko kide guztiek eginkizun bat hartzen dute, eginkizun gori burutzen laguntzen dute eta guztiei dagozkie bertatik etorritako merituak.

Lankidetzazko ikaskuntzak ikasleen arteko elkarreragin ugari ahalbidetzen ditu, zenbait ekintza edo egoera zehatz norbere buruaren aurrean eta besteen aurrean justifikatu behar dutelarik ikasleek.

Estrategi honekin, motibazioa areagotzen da (segurtasuna izatea, gozatzea, kontrola dezaketen zerbait sentitzen dute).

Partaideen afektu eta sentimenduei ere eragiten die lankidetzan aritzeak, talde bateko kide diren sentimendua areagotzen zaie, segurtasuna, indarra eta autoestimua ematen die.

### 3.3.5. Kideen arteko ikaskuntza

Gaur egun ikuspegi konstruktibista oinarri dugu kideen arteko harremanak, ikasleek euren ezagutza eratzeko prozesu gisa ulertzen dugu ikaskuntza, eta prozesu horretan guztiz ezinbestekoak dira elkarreraginak, bai irakasle-ikasleen artekoak eta baita kideen artekoak ere.

Askotan, ikasleen arteko elkarreraginetan, batek bestearen ekintzak edo adimen-prozesuak gidatzen dituen azalpen nahiz adibideak ematen ditu, ikaskuntza esanguratsuak ahalbidetuz. Izan ere, ikasle horrek hezkuntza-prozesuaren bitartekari eginkizuna hartzen du bere gain.

### 3.3.6. Ikasgelaren antolamendua

*-Taldeak:* Talde heterogeneoak egokiagoak izan ohi dira hezkuntza-premiak dituzten ikasleek elkarreraginak izan eta bertan parte har dezaten. Baina zenbait kasutan, talde homogeneoak egitea komenigarriagoa da, denbora-epe jakin batean behintzat, irakasle-taldearen zuzeneko esku-hartzea ezinbestekoa den edukiak ikasi ahal izateko, adibidez.

Talde-gela erreferente izango da ikaslearentzat. Zenbaitetan bakarka lan egitea komeni da, ikasle bakoitzak ikasteko duen erritmoari eta estiloari egokitzeko bidea ematen baitio. Bestetan, talde txikian lan egitea komeni da, prozedurazko eta jarrerazko edukiekin zerikusia duten jarduerak lantzeko. Azkenik, talde handian lan egitea ere komeni da, gaiak aurkezteko, eztabaidak egiteko, motibazioa areagotzeko, ...

*-Espazioak:* Espazioa eta altzariak banatzeko orduan, partaide izateko eta erantzukizunak bere gain hartzeko aukerak emango dizkio ikasleari, ikasgela bere ere badela sentitzeko bidea emango diolarik.

Aniztasunari erantzun nahi izanez gero, ikasgelan modu malguan banatu behar dira espazioak, zenbaitetan guztiak pertsona bati begira egoteko, bestetan taldean lan egiteko edo, talde txikiko lanak eta bakarkako lanak etabar burutu ahal izateko moduan.

*-Denborak:* Denborak egokitu beharko ditugu, kontutan hartu beharko ditugu:

\*Ikasleei euren denbora autonomia nahikoaz antolatzeko aukera eman behar diegu.\*  
 \*Ikasleei zereginak hasi eta bukatzeko modua emango dieten antolamenduetan pentsatu behar ditugu.\*  
 \*Taldea batean esku hartzen duten profesionalen

koordinatuta egon behar dutela, aprobetxamendu hobea ahalbidetuko duten antolamendurako bideak bilatzeko.

*-Baliabideak:* Zenbait kasutan material arruntak moldatu beharko ditugu edo ikasleen hezkuntza-premien araberako materialak sortu. Egokitzapen horietariko asko ikastetxean bertan egin daitezke, talde pedagogikoa osatzen duten kideen laguntzaz eta horien erantzukizunpean.



## **4. IKASTETXEAN DUEN ERAGIN SOZIALA, PSIKOLOGIKOA ETA PEDAGOGIKOA**

### **4.1. Alderdi teorikoa**

Teknika psikologikoak Curriculum Egokitzapen Indibidualetan duen eragin soziala, psikologikoa eta pedagogikoa zein den islatzeari ekingo diogu.

*Eragin sozialari* dagokionez, lehenik eta behin, Berariazko Hezkuntza Premiei buruz hitz egiteak duen garrantziaz ohartu gara. Alde batetik, gure gaur egungo errealitatea gizartean eta ikastetxeetan, aniztasunaren aldeko errespetua eta pertsonen arteko heterogeneotasuna bermatzen dituzten aldeko apustua egiten ari garelako. Horrela, hezkuntza-inklusioak eta aniztasunarekiko arretak garrantzi nabaria hartzen baitute dokumentu-mailan, bibliografia-mailan, eta bestetik, ildo honetatik, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei eta ikasleen aniztasunari hezkuntza-erantzun egokia eman ahal izateko.

Eskolan Premia Bereziak dituzten ikasleekin esku hartzeko garaian, profesionalak teknikak erabiltzearen ondorioz, ikasle horien autoestimua, interesak eta motibazioa indartzen dira horrela haien kideekin izan ditzaketen desberdintasunak edo arazoak gutxituz. Profesionalak erabiltzen duten teknikak, arestian aipatu bezala hainbat arlo jorratzen dira, hala nola, komunikazioa, harreman sozialak, besteak beste; honi esker, ikasleen beharrak asetzen dira modu egoki batez.

Guzti honengatik eta Curriculum Egokitzapen Indibidualean proposaturikoaz gain, talde profesionalaren arteko eta gurasoen arteko elkarlana sustatuz, eskolako eta familiaren arteko lana sendotu egiten da; helburu edo xede batekin, ikasleen ongizatea, autoestimua, interesa piztea, besteak beste.

*Eragin psikologikoari erreparatuz gero*, ikastetxean CEI dokumentuak eta esku hartzeko protokoloa egoteak profesionalari segurtasun handia ematen diete.

Teknika psikologikoek ere ikasleen zailtasunei aurre egin eta arestian aipatu bezala hauen interesa piztu eta motibazioa handitu egingo da.

Gelan gaia jorratuz gero, ikasleek gai normala bezala hartuko dute eta normaltasunez lantzeak eragin positiboa izanen du ikasle guztientzat; horrela, premia bereziak dituzten ikasleek normaltasun osoz onartuko dituzte inor baztertu gabe. Beraz,

psikologikoki eragin positiboa izanen du guztiontzat, bai ikasleei begira baita irakasleei begira ere lana erraztuz.

Azkenik, *eragin pedagogikoari* dagokionez, teknikek ikasleen ikasteko moduan eragina duenez profesionalek esku hartzeko momentuan materialak nola egokitu eta nola transmititu kontutan izan beharko dute. Betiere, esan beharrekoa edota transmititu beharrekoa ongi zaindu beharko du, hau da, bere jarrera egokia izan beharko du. Materialei dagokionez, irakasleek moldatu beharko dituzte ikasleen beharretara, lan talde heterogeneoen bidez egin diezaioke aurre.

Orain arte esandako guztiagatik eta Gradu Amaierako lan honetan esandako guztiagatik esan dezakegu sozialki, psikologikoki eta pedagogikoki hezkuntza arloan eragin zuzena duela.

#### **4.2. Egiaztatze enpirikoa**

Jarraian eskola praktikak egin ditudan garaian ikastetxeetan ikusitako teknika psikologikoak aipatzera noa.

Eskola praktikei esker, ikasleok alderatzen ditugu graduko edo aipamenetako irakasgaietan emandako eduki teoriko-praktikoak, eta, irakasle lanbidean aritzeko behar den jakintza eta trebetasunak, hots, alderatzen ditugu ikasketetan aztertutako egoerak eta eskola ematean benetan gertatzen direnak. Horrenbestez, hausnarketa kritikoa eskatzen dio jakintzen eta trebetasunen bi mota hauei buruz, lanbidean egokitu ahal izateko.

Ikasturte honetan egindako *Eskola Praktikak* irakasgaietan, praktikak egin ditudan gela arruntean jokabide aldaketarako teknikak erabiltzen zituzten irakasleek.

Tutoreak, haurrak txikitatik gizarte baten barruan bizitzeko ezinbestekoak diren arau eta mugak barneratzen joan daitezen, teknika konduktualak eta diziplinarioak ugari erabiltzen zituen. Haur Hezkuntzan lasaitzeko txokoa edo pentsatzeko txokoa erabiltzen zituzten ikasleek iraundu, norbait jo edota koska egiten zutenean; jarraian irakasleak taldetik aldendu eta estimulurik gabeko txoko batean denbora tarte finko batez isolatu egiten zituen. Denbora tarte pasa ondoren, tutorearen laguntzaz egoera aztertu egiten zuten eta egoera bideratzen saiatzen ziren.

Lasaitzeko txokoa eta pentsatzeko aulkia bezalako baliabideak, psikologiaren arloko TIME OUT (tiempo fuera) deritzon teknikatik ateratako metodo ezberdinak dira. TIME OUT teknikaren funtsa haurrak gelan ekintza negatibo edo desegokiren bat egiten duenean, taldetik aldendu eta isolaturik egon behar dela dio teoria honek. Haurraren urte kopurua eta isolatuta egon beharreko minutu kopurua berdina izan behar omen dira, hau da, 5 urteko haurraren kasuan 5 minutuz egon beharko luke bera bakarrik aulkian edo txokoan, ondoren hezitzailearen laguntzaz egoera aztertuz eta bideratu beharko litzateke. Hala ere, TIME OUT teknika ez omen da gomendagarria 3 urtetik beherako haurretan aplikatzea.

Pedagogia Terapeutikoko gelan egon nintzenean, PTa Berriazko Hezkuntza Premiak zituen ikasle batekin keinuak, sinbolo grafikoak edota ahozko kitzikatzaile ugari erabiltzen zituen berarekin. Haur Hezkuntzako ikasle honi hitz egitea asko kostatzen zitzaion ondorioz, zeinuen hizkuntza asko erabiltzen zuen PTarekin.

## **ONDORIOAK ETA GALDERA IREKIAK**

Gradu Amaierako Lanean zehar ikusi dugunez, ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dute; horretarako ikasleen aniztasuna, ikasle bakoitzaren hezkuntza beharrak, adierazten dituzten hezkuntza premia bereziak eta behar dituzten baliabideak kontutan izatea ezinbestekoa da. Guzti hau bermatzeko ikastetxeko koordinazioa, gurasoen parte-hartze eta konpromisoa, irakasleen eta oro har, hezkuntza-komunitateen laguntza eta inplikazioa, irakaskuntza indibidualizatuak besteak beste, eskaintzea funtsezkoa izango da. Era honetan, heziketa bidezkoagoa eta ekitate handiagoa landuko da.

Beti ez da lortzen erraza, eta horregatik erabiltzen diren hezkuntza tresnen baitan, zenbat eta zehaztuagoa egon erabili beharreko baliabidea, tresna eta, kasu honetan bezala, zein teknika den egokiago esku hartze baterako, orduan eta hobe.

Ikastetxean ematen den esku hartzea zuzena izan dadin aktiboa izateko eta ikasleen irakaskuntza ziurtatzeko, arestian aipatu bezala ikasle bakoitzaren ezaugarriak ongi ezagutu eta haiei egokitu beharko dira profesionalak, tresnak, tokiak, didaktika, kudeaketa eta hezkuntzaren jarduerara lotzen den guztia. Horretarako, hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrekin eskolan nola jokatu behar den erakustea/hezitzea ezinbestekoa da, eta esku-hartze horretarako ezagutu beharreko egungo irizpideen ideia orokorra eskaintzea izango da xedea. Azken finean, irakasleek zertan oinarritu behar diren eta zer kontzeptu kontuan hartu behar dituen ezagutzea eta bereganatzea beharrezkoa da, ondoren ikasleekin irakaskuntza indibidualizatu baten bitartez praktikan jarri. Horretarako, ikastetxeko maixu-maistren arteko koordinazioa, aholkularitza eta elkarlanari esker ikasleen premiak erantzun egokia izango dute.

Premia Bereziei erantzuteko bideei eta prozedurei dagokionez, teknika psikologikoak praktikan jartzea izango litzateke bideetako bat. Horretarako, irakasle guztiek teknika hauen nondik norakoak ezagutzea eta praktikara zuzen eramatea nahitaezkoa izango da. Betiere, profesionalak teknikak hasi aurretik kontutan izan beharko dute hasierako puntua eta nora iritsi nahi duten. Bestela, erabiltzen diren tresnak, BEK esate baterako, euskarri beratik zer eta nola erabiliko diren teknikak adierazita izatea lana erraztu eta emaitzak lortzen laguntzen du; dena urrats antolatu eta ordenatu batzuei jarraituz, protokoloa alegia.

Gutziz garrantzitsua den ikastetxeko koordinazioari dagokionez, aurrera eramango den teknika, profesional guztien erabaki bateratua izango da, hau da, Tutoreak, Pedagogia Terapeutikoko irakaslea, Orientatzailea, Zuzendaria besteak beste erabakitako teknika aurrera eramango da. Ikastetxearen eta familiaren arteko koordinazioa eta elkarlana oinarritzkoa izango da. Horrela, gurasoen eta ikastetxeko profesionalen informazioa elkartrukatuko dira aldiroko jarraipena eginez.

Ikastetxean neurri guztiak hartu eta gero ikasleren batek Curriculum Egokitzapen Indibiduala behar duela ikusten bada/den bakoitzean, Gradu Amaierako Lan honetan proposatutako CEI dokumentu bateratua erabil dezakete profesionalek, hori baita ikaslearen barneratzea ziurtatzeko eta eta ebaluaketarako adierazle bat izango da. Honen bitartez, maixu-maistrek esku hartzean egin beharrekoa dokumentu bakar batean izango dute, betiere profesional ezberdinek uneoro egiten diren aldaketak, aurrerapausoak besteak beste, aditzera eman beharko dute. Hau horrela izanik, esku hartzen ari diren profesional guztiei lagungarri suertatuko zaie dokumentu bateratu hau autoebaluazioa egiteko garaian, lanaren antolaketarako, esku hartzerako eta koordinazioa burutzeko.

Guzti hau esan eta gero, Gradu Amaierako Lana hasi aurretik nituen galderak, zalantzak eta helburuei erantzuna aurkitu diedala sentitzen dut eta aldi berean, gaiarekiko nuen interesa eta ezagutzak hedatu ditudala argi geratu da.

## ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK

### Apunteak

- Esarte, S. (2010). *Oinarri psikologikoak: gizanabakoa eta gizarte ingurunea*. Iruñea: NUP.
- Esarte, S. (2013). *Behar psikologikoak eskolan*. Iruñea: NUP.
- Iza, L. (2010). *Hezkuntza erakundeak*. Iruñea: NUP.
- Iza, L. (2012). *Hezkuntza inklusiborako proposamen pedagogikoak*. Iruñea: NUP.
- Reizabal, L. (2012). *Prebentzioa eta esku hartzea Hezkuntza testuinguruetan*. EHU.
- Trebol, F. (2011). *Aniztasuna eta erantzun psikopedagogikoa*. Iruñea: NUP.
- Trebol, F. (2013). *Eskolan esku hartzeko teknika psikologikoak*. Iruñea: NUP.

### Liburuak

- Ainscow, M; Booth, T. (2005). *Hezkuntza inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gida*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Berruezo Albéniz, R.; Conejero López, S. (2009). *El largo camino hacia una Educación Inclusiva*. Universidad Pública de Navarra-Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Booth, T; Ainscow, M. (2005); *Hezkuntza Inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gida*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Darretxe Urrutxi, L.; Zenitagoia Arexolaleiba, E. (2008). *Hezkuntza Bereziaren oinarri pedagogikoak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (1994); *Curriculum-egokitzapen indibidualak burutzeko laguntzako materialak*.
- Lizaso, I; Apodaka M (2008); *Giza garapen psikologikoaren ereduak I*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Palacios, J; Marchesi, A; Collen, C. (2010); *Garapen psikologikoa eta hezkuntza-I. Psikologia Ebolutiboa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Salaberria Irizar, K. (2006); *Psikologia klinikoa: Tratamendu psikologikoak*. Psikologiako Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Trebol Unzue, F. (2010). *Hezkuntza Bereziaren oinarri psikologikoak. Aniztasunaren trataera*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

### Artikuluak

UNESCO (1990). Guztientzako hezkuntzari buruzko munduko deklarazioa. Satisfacción de las necesidades básicas de aprendizaje (Jomtien, Tailandia, 1990eko martxoaren 5etik 9ra. Hemen ikusia:

<http://unesdoc.unesco.org/images/0008/000862/086289sb.pdf>

UNESCO (1994). Declaración de Salamanca y marco de acción para las necesidades educativas especiales (Salamanca, Espainia, 1994ko ekainaren 7tik 10era). Hemen ikusia: <http://www.unesco.org/education/pdf/SALAMA S.PDF>.

### Legeak eta dekretuak

Estatuko buruzagitza (2006). Ley Orgánica de Educación, LOE, 2/2006, maiatzaren 3koa.

<http://dpto6.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/curriprimaria1eusk.pdf> web orrian eskuragarri.

Hezkuntza kontseilaria (2012). Orden foral 65/2012, de 18 de junio, del Consejero de Educación, por la que se regula la respuesta educativa al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de trastornos de aprendizaje y trastorno por déficit de atención e hiperactividad en Educación Infantil, Educación Primaria, Educación

Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional de la Comunidad Foral de Navarra. *BON*, 8773-8775, (143)

<http://www.navarra.es/homees/Actualidad/BON/Boletines/2012/143/Anuncio-0/>

web orrian eskuragarri (2015/04/23)

Estatuko buruzagitza (1990). Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo. *BOE*, 28927-28942, (238)

<http://www.boe.es/boe/dias/1990/10/04/pdfs/A28927-28942.pdf> web orrian

eskuragarri (2015/04/23)

**Hiztegiak**

Elhuyar hiztegia: [http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)  
(20105/05/20)

Es-Eu itzultzaile automatikoa: <http://www.azkuefundazioa.eus/es/tejiendo-euskera-red/blog-y-web-interesantes/webrolla/es-eu-itzultzaile-automatikoa> (2015/05/20)

Hiztegia.net: <http://www.hiztegia.net/sinonimoak.php> (2015/05/20)

UZEL sinonimoen hiztegia: <http://www.uzei.eus/zerbitzuak-eta-produktuak/produktuen-katalogoa/sinonimoen-hiztegia/> (2015/05/20)

**Webgrafia**

Baldintzapen operantea, Skinner:

<http://psikologiahezkuntzan.blogspot.com.es/2013/03/baldintzapen-operantea.html>  
(2015/01/19)

Eredu kognitiboa: <https://sites.google.com/site/elmodelocognitivo/> (2015/05/20)

Eredu psikologikoak: <https://psicologia-online.com/> (2015/05/20)

Howard Gardnerren inteligentziz anitzak: <http://es.wikipedia.org/> (2015/05/20)

NHBBZ-CREENA. Jokabide arloa:

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/creena-conducta/home>  
(2015/05/20)





## ERANSKINAK

### I. Eranskina. 6-12 urte bitarteko ikasleen garapen psikologikoa

Oroitu beharra dugu haur bakoitzaren garapen fisikoak, emozionalak eta intelektualak bere erritmoa duela. Oro har, aurrez esan daitekeen moduan hazten eta garatzen dira haurrak, baina “normaltasuna” oso zabala da.

Garapen arloak estuki lotuta daudela azpimarratzekoa da. Haurraren ongizateak eta garapen osoak guztietan eskatzen du zaintzea.

Jarraian Nafar Gobernuak (1991) argitaratutako *6 eta 10 urte tarteko haurraren garapen psikologikoa* liburutik lortutako informazioan oinarritu naiz.

### 4. Taula. 6-10 urte bitarteko haurren garapen psikologikoa

#### 6 URTE

<b>GARAPEN FISIKOA</b>	<p><i>Motrizitate lodia:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Etengabe mugimenduan, oso aktiboa.</li> <li>-Mugimendua arina eta koordinatua da.</li> <li>-Begi itxiek zutik egon daiteke hanka bakarrean.</li> <li>-Oreka eta erritmoa menderatzen ditu.</li> <li>-Pilotarekin bote egiten du ongi kontrolatuz.</li> </ul> <p><i>Motrizitate fina:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Bere zapatak lotzen ditu.</li> <li>-Marrazki sinpleak egiten ditu, ulertzeko modukoak.</li> </ul>
<b>GARAPEN KOGNITIBOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Kolore guztiak izendatzen ditu.</li> <li>-8ari zer zenbakik jarraitzen dion badaki.</li> <li>-10 baino kantitate handiagoak ulertzen ditu.</li> <li>-Argazkien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ezagutzen ditu.</li> </ul> <p><i>*Aurrerapenak eskolan:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Hitzak ezagutzen hasten da eta binaka jartzen ditu.</li> <li>-Hitzak ezagutzen ditu bere luzeragatik edo hasierako letra/soinuagatik.</li> <li>-Liburuak behin eta berriz irakurtzen ditu.</li> <li>-Bere izen-deiturak idazten ditu.</li> <li>-Ortografia asmatzen du.</li> <li>-Digitoak alderantziz paratzen ditu 13 eta 19 arteko zenbakiak idatzi behar dituenean (13/31).</li> <li>-30eraino edo gehiagoraino buruz kontaktzen ditu.</li> <li>-Neurri sinpleak erabiltzen ditu.</li> <li>-Moneten izenak aipatzen ditu.</li> </ul>

	-Poliki idazten du eta nekez, letra larriak eta txikiak nahasiz.
<b>HIZKUNTZAREN GARAPENA</b>	<p><i>Hizkuntza hargarria:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Irudiak dituen hiztegia erabiltzen du.</li> <li>-Kategorien izenak ezagutzen ditu.</li> <li>-Hitzen esanahia definitu eta azaltzen du.</li> </ul> <p><i>Hizkuntza adierazgarria:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gauzen artean antzekotasunak eta ezberdintasunak bereizten ditu.</li> <li>-Hitzen hasierako kontsonanteen soinuak ezagutzen ditu.</li> <li>-Kategoriak izendatzen ditu.</li> <li>-Hitz luzeak erabiltzea maite du.</li> <li>-Hizkuntza gero eta sinbolikoagoa da.</li> </ul>
<b>GARAPEN PSIKOSOZIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Sentimenduak moldatzeko gaitasun txikia.</li> <li>-Besteentzat gauzak egiten gozatzen da.</li> <li>-Erabakiak hartzeko zailtasunak.</li> <li>-Alferra eguneroko lanetan, baina helduarekin ariko da haiek bukatzeko.</li> <li>-Bekaiztia, oso lehiazalea.</li> <li>-Mahai-joko sinpleetan parte hartzen du.</li> <li>-Maiz saiatzen da nahi duena egiten.</li> <li>-Aise urduritzen da; burugabea.</li> <li>-Aukeratutako jardueretan saiatzen da.</li> <li>-Ohera bakarrik joaten da baina gustura egiten da loak hartu baino lehen norbait berarekin kontu kontari egoten bada.</li> <li>-Askotan frustratua, batzuetan kasketak harrapatzen ditu.</li> <li>-Batzuek hatz lodia miazkatzen dute berriz ere, haur txiki batek bezala hitz egin, etab.</li> <li>-Hobea da jokabide positiboak goraiatzea negatiboak azpimarratzea baino.</li> <li>-Askotan besteen gauza txikiak hartu eta aurkitu dituela dio.</li> <li>-Bere ezker-eskuinak bereizten hasten da.</li> <li>-Denbora tarteen ezberdintasuna ulertzen du, urtaroak barne.</li> </ul>

## 7 URTE

<b>GARAPEN FISIKOA</b>	<p><i>Motrizitate lodia:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Batuetan gehiago mugitzen da, beste batuetan gutxiago. 6 urterekin baino lasaiagoa, betiere.</li> <li>-Bizikletan ibiltzen da.</li> <li>-Arazorik gabe egiten du laster.</li> </ul> <p><i>Motrizitate fina:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gihar txikiak ongi garatuak daude.</li> <li>-Bergia-eskua koordinazioa ongi garatua dago.</li> <li>-Proporzio egokiko triangelu bat marrazten du.</li> <li>-Diamante bertikalak eta horizontalak kopiatzen ditu.</li> </ul>
<b>GARAPEN KOGNITIBOA/HIZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Aise mintzatzen da.</li> <li>-Argot hitzak eta esaldi eginak erabiltzen ditu.</li> <li>-Kausa-ondorio erlazioak ulertzen ditu.</li> <li>-Asteko egunak eta hilabeteak aipatzen ditu.</li> <li>-Bere sentimenduez mintza daiteke atzera begira.</li> <li>-Berean buru belarri ari denean askotan ematen du ez duela entzuten.</li> <li>-Arazo konkretuak konpontzeko gai.</li> <li>-Informazioa antolatu eta sailkatu dezake.</li> <li>-Konkretuan ariz hobeki ikasten du.</li> <li>-Zoriko eta justiziako gaietan interesatua.</li> <li>-Denboraren barne oharpena agertzen da.</li> </ul> <p><i>*Aurrerapenak eskolan:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Hiztegiko irakurketa handitzen da.</li> <li>-Idazteko abiadura handitzen da.</li> <li>-Letrak alderantziz jartzeko joera (b/d) kontrolatzen hasten da.</li> <li>-Batuketan eta kenketan konbinazioa egiten ikasten du.</li> <li>-Ordua esaten ikasten du.</li> </ul>
<b>GARAPEN PSIKOSOZIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Eguneroko zereginetan independentea.</li> <li>-Distrazioak saihesten ikasten du eta aldiro zeregin batean aritzen.</li> <li>-Haserretzen denean isil eta zakar bihurtzen da.</li> <li>-Ahotsaren eta izaeraren kontrol handiagoa.</li> <li>-Asmo handiak ditu berarentzat. Askotan etsitua dago gauzak egiteko duen moduagatik.</li> <li>-Atsegina izan nahi du besteekin. Sentibera goraiatzat dutenean eta errua botatzen diotenean.</li> <li>-Ez du ikasi jokoan galtzen. Tranpak eginen ditu edo joko bat-batean bukatuko du.</li> <li>-Umorea ez du ulertzen. Maiz pentsatzen du besteek barregarri hartzen dutela.</li> <li>-Begirunea du besteekin.</li> <li>-Zuzen eta oker dagoenaz kezkatua.</li> </ul>

## 8 URTE

<b>GARAPEN FISIKOA</b>	<p><i>Motrizitate lodia:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Mugimendua erritmikoa da.</li> <li>-Askotan istripuak, jarduerak gaizki kalkulatzegatik, adibidez besoa hautsi.</li> <li>-Arkatza, hortzetako eskuila eta beste gauza batzuk tentsio txikiagoz hartzen ditu.</li> <li>-Gihar luzeak eta txikiak lantzen gozatzen da.</li> </ul>
<b>GARAPEN KOGNITIBOA/HIZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Erraz adierazten du eta komunikatzen da.</li> <li>-Sarri mugarik gabe mintzo da, adibidez, harrotzen denean, gauzak puzten dituenean, bere baitakoaz hitz egiten duenean.</li> <li>-Hitz luzeak maite ditu.</li> </ul> <p><i>*Irakurketa:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Irakurketan gozatzen da, gorabeherekin.</li> <li>-Istorioetan umorea gustatzen zaio.</li> <li>-Hitz berriak ulertzen ditu testuinguruaz eta soinuez baliatuz.</li> <li>-Gelditu eta irakurritakoaz mintzatzeko gai da.</li> <li>-Hitz batzuk baztertzen ditu eta ordenarik gabe irakurtzen du.</li> <li>-Nahiago du irakurketa isila.</li> </ul> <p><i>*Matematikak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Batuketa-kenketa konbinazioak ezagutzen ditu, batzuk buruz.</li> <li>-Batuketak eta kenketak egiten ikasten du, buruarekin.</li> <li>-Biderketaren oinarriak zertxobait ezagutzen ditu.</li> <li>-1/2 eta 1/4 zatikiak ezagutzen ditu.</li> <li>-Diruan badu interesa.</li> </ul> <p><i>*Idazketa:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Esaldiak idatz ditzake.</li> <li>-Idazketa etzana hasten du.</li> <li>-Gutxitan jartzen ditu letrak alderantziz (b/d).</li> <li>-Letra larriak eta txikiak erabiltzen ditu.</li> <li>-Ongi idazten saiatzen da.</li> </ul>
<b>GARAPEN PSIKOSOZIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Batzuk berekoiak dira eta arreta eskatzen dute.</li> <li>-Batzuk alaiak dira.</li> <li>-Besteen jardueren jakinmin handia dauka.</li> <li>-Jokoetan galtzen ikasten du.</li> <li>-Kritikekin sentibera, besteen aurrean, batez ere.</li> <li>-Bere iraganarekin interes handia: istorioak, argazki albumak.</li> <li>-Etorkizunarekiko interesa. Sarri ospetsu izatea pentsatzen du.</li> <li>-Umorea izaten hasten da, adibidez, berak pentsatutako asmakizunak eta txisteak.</li> <li>-Etxekoek hitz egiterakoan batzuk lotsagabeak eta pazientzia gutxikoak dira.</li> </ul>

## 9 URTE

<b>GARAPEN FISIKOA</b>	<p><i>Motrizitate lodia:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Lehiako kirolak interesatzen zaizkio. Jokoen alde sozialak oso garrantzitsuak dira.</li> <li>-Gehiegikerietarako joera, jarduera fisikoetan.</li> <li>-Askotan baldarra eserita dagoenean: mahai aldera okertuta, burua paperetatik hurbilegi, etab.</li> <li>-Bere gaitasun fisikoak trebatzen asko saiatzen da.</li> <li>-Batzuek mina izaten dute urdailean, hanketan, etab. baita zorabioak ere.</li> </ul>
<b>GARAPEN KOGNITIBOA/HIZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Urte garrantzitsua irakurketan, idazketan eta matematiketan abilitadea eskuratzeko.</li> <li>-Oso saiatua da eta asko jostatzen du.</li> <li>-Ugalketa maiz mintzatzen da lagunekin.</li> <li>-Egunez beldurtzen duten gertakariak beldurrezko amesgaiztoekin lotzen ditu.</li> <li>-Eskolan gozatzen da. Toki altuenera igo nahi du eta bere beldurrak eta porrotak gehiago lotu ditzake gai batekin irakaslearekin baino.</li> <li>-Ikasteko gehien maite dituen metodoak deskriba ditzake.</li> <li>-Gertatutako gauzak eta informazioa irakurtzea gustatzen zaio: misterioak eta biografiak.</li> <li>-Egunkaria idazten eta zerrendak egiten gozatzen da.</li> <li>-Nahiago du isilik irakurri.</li> <li>-Nahiago du kontuak idatziz egin, buruz baino.</li> <li>-Eskolan gauzak ongi egiten saiatzen da.</li> </ul>
<b>GARAPEN PSIKOSOZIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Egonkortasun emozional handiagoaren itxura ematen du.</li> <li>-Emozioekin aise pasatzen da mutur batetik bestera, labur.</li> <li>-Oro har lankidetzarako prest, arduratsua eta zintzoa.</li> <li>-Zenbait orduz kontzentratzeko gai.</li> <li>-Aldez aurretik planak egitea gustatzen zaio.</li> <li>-Kideen eraginak/presioak garrantzi handiagoa hartzen du.</li> <li>-Bere interesak taldearen helburuaren azpian jartzen hasten da.</li> <li>-Bildumak egiteko hobbiak izaten has daiteke.</li> <li>-Jokoetan galtzen ikasten du.</li> <li>-Logela gehiago zaintzen hasten da.</li> <li>-Sexu bereko kide bat lagun berezizat hartzen du.</li> <li>-Beste sexukoak gordin kritikatzten ditu.</li> <li>-Erabakiak aise hartzen ditu.</li> <li>-Franko erraza bideratzen.</li> </ul>

## 10 URTE

<b>GARAPEN FISIKOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-10 urte betetzen dituzten neskato-mutikoak ez dira bereizten garaieran eta sexu heldutasunean.</li> <li>-Neskatoen gorputzak zertxobait bigundu eta borobiltzen dira (10 urte eta erdi dituztenean).</li> <li>-Kexa gutxiago minengatik.</li> <li>-Urduriago, neskatoak gehiago mutikoak baino.</li> <li>-Nekez ez dira apenas jabetzen.</li> <li>-Bainuari gogor egiten diote kontra.</li> <li>-Aire zabaleko ariketa fisikoa oso maite dute: saski-baloi, lasterketa egitea.</li> </ul>
<b>GARAPEN KOGNITIBOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gizarte arazoei eta mundukoei buruzko eztabaidetan parte hartzen dute.</li> <li>-Haur batzuk irakurzaleak, besteak ez.</li> <li>-Umorea zabala dute, geldoa eta. oro har, ez du interesik helduentzat.</li> <li>-Guraso izateko interesa, baita seme-alabak tratatzeko moduan ere.</li> <li>-Gehienetan ez du interesik egunkari bat idazteko.</li> <li>-Bere nahiak dira jabetza materialak, osasuna eta zoriona eta hobetze pertsonala.</li> <li>-Gauzak buruz ikasten gozatzen da.</li> <li>-Eskolan nahiago du ahozko lana idatzizkoa baino.</li> <li>-Interes laburra du. Beraz, eskolan sarri aldatu behar du jarduera.</li> <li>-Filmei eta telebistari buruzko interes txikiagoa dauka.</li> </ul>
<b>GARAPEN PSIKOSOZIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Erlaxatua ematen du eta kezkarik gabea. "Benetan zorionsutzat" deskribatzen du bere burua.</li> <li>-Mutikoak, adiskidetasuna adierazteko, kolpeka, bulkada eta borrokan ibiltzen dira.</li> <li>-Neskatoek, adiskidetasuna adierazteko, idatzizko oharrak erabiltzen dituzte, esamesetan ibiltzen dira eta eskutik elkar hartuta.</li> <li>-Lagunekin sekretuez eta misterioez hitz eginez gozatzen dira.</li> <li>-Gurasoei baino gehiago lagunei sinesten die.</li> <li>-Ez du ontzat hartzen lagunaren aurrean goraiatzea edo errieta egitea.</li> <li>-Gutxitan haserretzen da eta laster joaten zaio.</li> <li>-Gutxitan egiten du negar, ez bada minez.</li> <li>-Amarekin zintzoa da eta fisikoki samurra, harengan konfiantza dauka.</li> <li>-Harreman oso positiboa dauka aitarekin, gurtzen du, miresten du.</li> </ul>

## II. Eranskina. Jean Piageten garapen psikologikoa (Epistemologia Genetikoaren teoria)

Lizaso, I eta Apodaka, M. egileek argitaratutako "Giza garapen psikologikoaren ereduak I" liburutik eskuratutako informazioan datza.

Jean Piaget 1896. urteko abuztuaren 9an Neuchatelen (Suitzan) jaio zen. Txikitatik, animaliekiko interes handia izan zuen, eta 11 urterekin gai horrekin loturiko bere lehenengo artikulua argitaratu zuenean, esan daiteke hasiera eman ziola ibilbide zientifikoari.

1919an Piaget ezagutzaren garapena aztertzerantz eraman zuen gertakari bat suertatu zen. Binetek Pariseko zuen laborategian, adimenaren garapenarekin loturiko arazoak aztertu zituen; umeek arrazoitzeari buruzko akatsak behatu zituen eta umeek pentsamendu logikoa lortzeko hainbat estadio garatu behar direla ondorioztatu zuen. Bi urte geroago, *Epistemologia Genetikoa* edo ezagutzaren eskurapenari buruzko teoria eratu zuen. Teoriaren arabera, ezagutzaren jatorria eta garapena azaldu nahi ditu.

Piageti garai hartako Baldwin (1861-1934) adituaren lanetatik kontzeptu asko eskuratu zituen eta adimena, ezagutza eta pentsamendua terminoak sinonimotzat hartzen ditu, eta adimenean, hiru alde bereizten ditu: edukiak, egiturak eta funtzionamendua.

- *Edukiak*: Jokabidean islatzen diren adierazpenak dira. Datu kuantitatiboak dira eta urteak aurrera doazen neurrian gehitu egingo dira. Adibide gisa ondorengoak har genezake: umeak dakien hitz kopurua adinarekin batera areagotuz joango da.
- Adimenaren *egiturei* dagokionez, adimenaren antolatzaileak dira, hots, garapenaren une bakoitzean, giza adimena antolatzen dute. Ingurunetik hainbat elementu jaso ondoren eratzen diren erantzun multzoak dira. Egitura kognitiboek erreferentzia eginez, adinarekin aldaketa kualitatiboak gertatzen direla dio Piagetek, eta aldaketa horiek hainbat *estadiotan* islatzen direla. Haurra estadio batetik bestera pasatu ahal izateko dituen eskemak erabili beharko ditu baina betiere, egituraren arabera.

-Aipatutako *eskema* horiek ekintza baten errepikatzen dena eta orokortu daitekeena irudikatzen dute, hau da, ekintza guztiek komunean dutena da. Hasiera batean, ekintza horiek portaera-



erreflexuak dira baina errepikatzen doazen heinean, ekintza operazional bihurtzen dira. Garapenari esker, umeak eskema berriak sortzen ditu eta aurretik existitzen direnak berrantolatzen ditu. Aldaketa guzti horiek segida batean gertatu eta estadioetan islatzen dira.

- Adimenaren *funtzionamendua* aldaezina dela dio Piagetek; aldaezina bizitzan zehar, eta nahiz eta adin guztietan gure adimenak berdin funtzionatzen duela esan, garrantzitsua izango da adimenaren garapena ulertu ahal izateko, antolakuntza eta egokitzapen-prozesuak hortxe gertatzen baitira.

Barneratzeak edo asimilizaioak estimulu bati organismo batek ematen dion erantzun motarekin du zerikusia. Horrela, inguruneko informazioa edo esperientzia aldez aldez aurretiko kategorietara moldatzen da eta egitura kognitiboa ez da aldatzen. Hots, testuingurutik jasotzen duen informazioa berak duen ezagutzaren egituran barneatuz doa pertsona. Subjektua bere ezagutza-egiturak aldatuz egokituz doala dio aditu honek. Hala, inguruneak ekartzen dizkion arazo eta informazio berriei aurre egin ahal izango die. Esatekoa da Piagetek jolasaren bidez azaldu zuela barneratzea, hau da, jolasaren antzera, barneratzea atsegina, errepikakorra eta esperientzia berrindartzen duen ekintza zela. Moldatzea berriz, imitazioaren bidez irudikatzen zuen.

Piageten ustez, ezagutzaren garapenak hainbat estadio ditu eta ondorengo ezaugarriak ditu: lehenik eta behin, estadioak, beti ordena berdinean azaltzen dira eta ordena hori ezin da aldatu. Bigarrenik, estadio bakoitza adin-tarte batekin erlazionatzen da (haur bakoitzak bere adimenaren garapen berezia daramala esan beharra dago). Hirugarrenik, estadioen artean harreman hierakiko inklusibo bat dago: aurreko estadioaren egiturak hurrengo estadioko egituretan integratzen dira. Azkenik, estadio batetik hurrengorako urratsa mailaz mailako da. Piagetek lau estadio bereizten ditu, hurrengo taulan ikus genezakeen bezala:

### 5. Taula. Ezagutzaren garapen-estadioak

ADINA (urteak)	ESTADIOA	EZAUGARRIAK
0-2 urte	Adimen sentsomotorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Erreflexuekin hasi eta funtzio sinbolikoak agertzen direnean amaitzen da.</li> <li>-Kasualitatez plazerra ematen dion jokaera errepikatzeko joera izatea.</li> <li>-Ekintzak koordinatzea borondatezkoa nahitaezko bihurtzea.</li> <li>-Gertakari berriak sortzea, ondorioz, esploratzen hastea.</li> <li>-Arazo sinpleei nolako irtenbidea eman pentsatzen hasten da, ondorioak aztertuz.</li> </ul>
2-6 urte	Eragiketa aurreko pentsamendua	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Umeak, helduak imitatuz, hizkuntza ikasten du. Gainera, besteekin komunikatzeko bidea zabaltzeaz gain, bere buruarekin hitz egiteko aukera ere lortuko du.</li> <li>-Bi mundu sortzen dira: mundu soziala eta barne-mundua.</li> <li>-Umearen pentsamendu mota horretan ezaugarri bereziak daude: animismoa, artifizialismoa eta kausaltasuna.</li> </ul>
7-11 urte	Eragiketa konkretuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Umea logikaren jabe egiten da.</li> <li>-Eragiketa mentalak egiteko gaitasuna aregotzen da (eragiketa konkretuak dira).</li> <li>-Arlo sozialean, kooperatibo bihurtzen da, gauzak besteen ikuspuntik ikusteko gai da, ondorioz, aurreko estadioetako egozentrismoa gainditu egiten du.</li> </ul>
11<	Eragiketa formala	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Adimenaren garapena estadio honetan amaituko da, baina hori nerabegarotik aurrera gertatuko da.</li> <li>-Eragiketa formalak egiten hasten dira (nahitaez ikusi edo manipulatu behar ez direnak).</li> <li>-Teoria abstraktuak egiteko ahalmena sortzen du. Batzuek, garai horretan, beren filosofia, politika edo estetika sortzen dituzte.</li> <li>-Azken finean, hausnarketa, teoria eta hipotesiak egiteko gai izango dira.</li> </ul>

Piagetek diosenaren arabera, adimen sentsomotorraren estadioak sei azpiestadio ditu, hurrenez-hurren:

- 1) Erreflexu-ariketa azpiestadioa (0-1 hilabete): Haurrek beren jaiotzetiko erreflexuak erabiltzen dituzten heinean, haiekiko nolabaiteko kontrola hartzen dute.
- 2) Lehenengo mailako erreakzio zirkularra (1-4 hilabete): Umeak, kasualitatez, plazerra ematen dion jokaera errepikatzeko joera izango du. Lehenengo erreakzioa deitzen zaio, haren gorputzetik sortzen delako.
- 3) Bigarren mailako erreakzio zirkularra (4-8 hilabete): Umeak, kasualitatez, zerbait interesgarria edo atsegina egiten du. Ekintza hori behin eta berriz errepikatuko du ondorio berbera lortzeko. Bigarren erreakzioa deitzen zaio umearen gorputzetik kanpo gertatzen baita.
- 4) Bigarren eskemen koordinazio positiboa (8-12 hilabete): Haurrak bere ekintzak koordinatzen dituen heinean, nahita eginiko ekintza bihurtzen dira. Gertakariak aurreikusten hasten da, eta aurretik eginiko eskemak erabiltzen hasten da oraingo gertaeretan.
- 5) Hirugarren mailako erreakzio zirkularrak (12-18 hilabete): Haurrak gertakari berriak sortzen hasten dira. Hirugarren erreakzioak deitzen zaie, esploratzeko xedea edo helburua dutelako.
- 6) Arazo txikietarako irtenbideak aurkitzea (18-24 hilabete): Arazoen irtenbideak nola aurkitu pentsatzen hasten dira, eta horren ondorioz, ekintza eta ondorioak aztertzen dituzte.

Laburbilduz, lehenengo estadioan, ekintza-erreflexuak soilik ez dira jaiotzetiko gaitasunak. Ondoren, erreflexu horiek ohituretan antolatzen dira, eta pertzepzioa eta mugiemndua koordinatuz joaten dira; momentu horretan ikusten dituen objektuak hartzeko gai da umea. Azkenik, adimen praktikoa edo sentsomotorra delakoa agertzen da, eta arazoak konpontzeko gai da.

### III. Eranskina. Lev S. Vigotskiren garapenaren psikologia (oinarrizko ekarpena).

Aurreko eranskinaren antzera, "Giza garapen psikologikoaren ereduak I" liburutik lortutako informazioan oinarritu naiz.

Vigotskik giza garapena testuinguru sozialaren barruan kokatzen du eta testuinguruarekin lortutako ikuspegia planteatu zuen lehen aldiz. Goi-mailako funtzio psikologikoen bilakaera azaldu zuen, gizabanakoen funtziorik tipikoenak baitira. Horren ondorioz, psikologiaren azterketa eta lan-eremu nagusiek funtzio horiek izan beharko lituzketela esan zuen.

Kulturak garapenean duen eragina aztertzea zen haren interes nagusia. Aditu honen ustez, talde jakin batek une jakin batean dituen ohiturak eta talde horrek historian zehar izan dituen lorpen zientifikoak, materialak, intelektualak eta artistikoak daude kulturaren barruan. Umeak testuinguru soziokulturalaren eta historikoaren eragina duela uste zuen eta, horren ondorioz, umeak testuinguru horretan eragin zuzena duela. Haurraren gaitasun psikologikoaren garapena gerta dadin, besteekiko harremanak ezinbesteko motorra direla dio. Horiek zeinuen bidez gauzatzen direla jendartean eta hizkuntza izango dela gizakien arteko harremanak bideratzeko sortu eta moldatu den zeinu-sistematik emankorrena. Vigotskik pentsamendua eta kontzientzia beste pertsona batzuekin egindako elkarrekintzatik sortzen dela dio. Lan kooperatiboaren bidez, natura menderatu eta eraldatzen dela eta, zeinuak direla horretarako tresnak, eta horiek barneratzean datza pentsamenduaren sorrera..

Esan beharra dago, Vigotskik marxismoa eta psikologia uztartzeko egindako saiakera horretan ezin izan zituela ekonomiatik eratorritako kontzeptuak erabili, ondorioz, kontzeptu berezkoak edo propioak asmatu behar izan zituen:

- Formazio bikoitzaren legea: Honen arabera, funtzio psikologiko gorenak, hala nola arreta boluntarioa, mintzaira eta borondatea. Bi aldiz agertzen direla dio, lehenengo maila sozialean, hots, pertsonen artean eta gero, maila indibidualean.

-Lehenengoari, maila interpsikologikoa deitu zion, eta bigarrenari, maila intrapsikologikoa. Horren ondorioz, prozesu psikologiko gorenak gizakien arteko harreman bezala sortzen direla azaltzen du.

